




Aritza Bergarak Lemoizen
girotutako *Olas Negras*
aurkeztuko du, azaroaren
28an, Armintzan. ▶15

Toti Martinez de Lezea idazleak liburu
ilustratuen munduan egindako
ibilbideaz berba egin digu; Getxoko
Komiki Azokan solasean ibili da. ▶17



hiruka

Uribe Kostako astekaria



40. zenbakia

2015eko
azaroaren 26tik
abenduarien 2ra arte

Egunero, hobeto

Aste-akabu honetan hasiko dira ospakizunak Uribe Kostako herri den-denetan.



KIROLAK GETXO

Berdintasuna, udal arauetan

Uribe Kostako bost
udalek onartu dituzte
berdintasun-ordenantzak. Beste
bik laster egingo dute. ▶22

KULTURA GETXO

Eskulangintza Azoka

Azaroaren 27tik 29ra,
artisauen salmenta-postuak eta
umeentzako tailerrak egongo dira
Areetako Xake plazan. ▶16

HERRIZ HERRI BARRIKA ETA SOPELA

Ander Deuna ospatuz!

Azaroaren 30ean, astelehena,
Barrikoztarrek eta sopoloztarrek
sansandresak ospatuko dituzte,
bakoitzak bere baselizan. ▶14



Ia milioi bat euro
inbertituko du
Berangoko Udalak
udalerriko industrialdea
zaharberritzeko. ▶6

Koldo Izagirre idazleak
berbaldia eskainiko du
eguen honetan, Algortan,
Uribe Kostako Irakurleen
Txokoak gonbidatuta. ▶14

Fair Saturday ekimen
solidarioaren barruan, sei
musika-emanaldi egongo
dira Getxon, Gorkizen eta
Urdulizen. ▶16

Josue Atela teknikariak
gidatuko du Erandioko
futbol-taldea. Jaitsiera
postuetatik atera eta gora
egitea du helburu. ▶20

Euskararen alde, hamaika jarduera

Udalerriko euskalgintzan lan egiten duten elkarteek, eskolek eta Getxoko Udalak hainbat jarduera antolatu dituzte Euskararen Egunaren harira.

Abenduaren 3a, Euskararen Eguna! 1949an ospatu zen lehenengo Euskararen Eguna, Ipar Euskal Herrian, Parisen, Mexikon eta New Yorken, besteak beste. 1995ean, berriz, Uruguaiako euskaldunek Euskararen Egun ofizial izendatzeko eskaera egin zuten, Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak ontzat eman, eta abenduaren 3a aukeratu zuten. Hori gogorarazteko, eta euskarari gorazarre egiteko asmoz, Getxoko Udalak, bertoko euskalgintzan lan egiten duten hainbat elkarte eta eskolek hamaika ekitaldi antolatu dute.

Iragarri dutenez Algortako J.C. Baroja institutuak prest du ikasleentzat aste osoko egitaraua, azaroaren 30etik abenduaren 4ra arte. Halaber, abenduaren 13ra arte goza daiteke ArgIHizkiak (Egizu eta Hiruka) erakusketaz Villamonteko kultur etxean. Hilaren

26an, UKITXen Koldo Izagirregaz berba egin ahal izango da 19:30ean, Villamonteko kultur etxean. Zapatuan, hilak 28, Bizkaiko Trikiti Elkartek Nazioarteko Trikiti Jaialdia egingo du musika-eskolan, 19:00etan; aldeztu aurretik sarrera erosi beharra dago: 8 euroan, kultur etxeetan edo Kutxabanken kutxazainetan. Ondoren, 22:00etan, «trikisesiona» egongo da Azebarri kultur elkartearen. Domekan, hilaren 29an, dantzarako ordua izango da, Itxartu Dantza Taldeagaz. Guztira, 100 dantzarik egingo dute kalejira; ostean, saio bereziak egingo dituzte Satistegi eta Telletxe plazetan, 12:00etatik aurrera; euria eginez gero, Zabala eskolan egingo dituzte.

Argia Ereiten saria

Abenduaren 1ean, martitzena, Argia Ereiten Euskara Sariaren Gala egingo

dute Algortako Fadura kiroldegian, 20:00etan. Josu Esnaolak eta Alfredo Lopez de Gereñu «Bertso»k jasoko dute aurtengo saria.

Abenduaren 3an, Euskararen Egunean, 10:00etan hasiko dira euskarari gorazarre egiten, «trikikantu» gosariagaz (Pipers tabernan hasita); euskaltzarietako ikasleek parte hartuko dute horretan. 12:30ean, Aixerrota institutuko ikasleek eta Musika Eskolako bandak *flashmob*-a grabatuko dute San Nikolas plazan. Arrastian, 19:00etan, jarduera horren bigarren saioa egingo dute, Kimetz abesbatza gehituta. Horretan ere, Getxoko «gazte euskaldunek» parte hartuko dute. Jarraian, Musika Eskolako bandak kontzertua eman eta gero, 'Euskarak 365 Egun' kandelaz idatziko dute bertaratzan direnek. Gero, gazteek euskararen aldeko topa egingo dute, Salemen. ◀

Ekitaldi batzuk

Abenduaren 13ra arte

09:00-14:30/16:00-21:30 ArgIHizkiak erakusketak, Villamonteko kultur etxean.

Azaroak 26, eguna

19:30 Koldo Izagirre idazlearen berbaldia, UKITX-ek antolatua, haren liburuaren gainean hitz egiteko. Villamonteko kultur etxean.

Azaroak 28, zapatua

19:00 Nazioarteko Trikiti Jaialdia. Sarrera: 8 euro. Andres Isasi musika-eskolan.

22:00 Trikisesiona Oxabiren lagunak taldeagaz, Azebarri kultur elkartearen.

Azaroak 29, domeka

12:00etatik aurrera Dantza-kalejira eta emanaldia, Itxartugaz; Basagoiti, Satistegi, Torrene eta Telletxe.

Abenduak 1, martitzena

20:00 Argia Ereiten Euskara Sariaren Gala, Fadura kiroldegian.

Abenduak 3, eguna

10:00 «Trikitikantu» gosaria, Pipers tabernan.

12:00/19:00 *Flashmob*-a, kontzertua eta *Euskarak 365 Egun* ekitaldia, San Nikolas plazan. Ondoren, topa, Salemen tabernan.

9. orrialdean daukazuen kartela ebaki eta jarri erakuslehoetan. **Horma-irudiagaz** argazkia atera ahal duzue, eta gero bidali: info@bizarralepoan.org



BaPiruke
Gabonetako koloniak
Abenduaren 23tik urtarrilaren 5era

Egunak: abenduak 23, 24, 28, 29, 30 eta 31 & urtarrilak 4 eta 5
Norentzat: 5-12 urte bitarteko umeentzat | nefasías de entre 5 y 12 años.
Non: I.B. Zabala (Algorta) eta Romo eskoletan | I.B. Zabala (Algorta) y Romo

Prezioa: bazkideek 45 euro; bazkide ez direnek 60 euro; Getxon gutxieneko errenta jasotzen dutenek 20 euro (Aldundiako ziurtagiria + NANaren fotokopia) | socios/as 45 euros; no socios/as 60 euros; renta básica en Getxo 20 euros (certificado de Diputación + fotocopia del DNI).

Izena emateko: ingresoaren ziurtagiriarekin eta Osakidetza txartelaren fotokopiarekin bulegora etorri eta izen emate orria bete eta sinatu behar da (gure web guneetik jaitsi daiteke eta soilik gurasoak edo tutore legalak sinatu dezake). **Laboral Kutxa:** 3035 0108 06 1081032766 | con el abono del banco y la fotocopia de la tarjeta de Osakidetza hay que venir a la oficina y rellenar y firmar la hoja de inscripción (se puede descargar de nuestro blog y solo puede firmarla padre, madre o tutor/a legal). **Laboral Kutxa:** 30350108061081032766

Izen emate epea: bazkideek azaroaren 30etik abenduaren 2ra eta bazkide ez direnek abenduaren 9tik 11ra | socios/as del 30 de noviembre al 2 de diciembre; no socios/as del 9 al 11 de diciembre.

Izena emateko ordutegia: egunero 10:00 - 13:30; 30ean, 2an, 9an eta 10ean ere 16:30 - 18:00 | todos los días de 10:00 a 13:30; los días 30, 2, 9 y 10 también de 16:30 a 18:00

Bizarra Lepoan Euskara Elkartea, Martitzena kalea 16, 2. solairua - 4. bulegoa, Algorta 94 491 03 87 | www.bizarralepoan.eus | info@bizarralepoan.org

BIZARRA LEPOAN: GETXONKO EUSKARA ELKARTEA GARA ETA 20 URTE DARAMATZAGU EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEN. BARRUNE, GEHITU KIROLA ETA GEHITU KULTURA DIRA GURE EGITASMO NAIGUSIA. HERRIRO EUSKALTZEGARRI BATERA ERGITU ELKARTEAN ERE PARTE HARTZEN DUGU. SOMOS LA ASOCIACIÓN DE EUSKARA DE GETXO Y LLEVAMOS 20 AÑOS FOMENTANDO EL USO DEL EUSKARA. NOSOTROS PROYECTOS PRINCIPALES SON BARRUNE, GEHITU KIROLA Y GEHITU KULTURA. TAMBIÉN CON LOS EUSKALTZOS DE GETXO TAMBIÉN PARTICIPAMOS EN LA ASOCIACIÓN ERGITU.

EUSKARA BIZI **Getxo** *bizi ezazu*

2015eko saridunak:
Josu Esnaola eta Alfredo Lopez de Gereñu
Orain 19 urte,
Getxon **Berbalaguna**
egitasmoa martxan jarri zuten

Argia Ereiten

Getxoko Euskara Saria 2015

Sariaren banaketa-ekitaldia: abenduak 1, 20:00, Fadura

Getxo

Azken egunak, bonuak gastatzeko

Azaroaren 30era arte dago aukera Getxobonoak erosi eta trukatzeko. Beherapenak dituzten 3.000 txartel ipini zituzten salmentan udalerriko dendariak. Horiekaz, 40 euroren truke 50 euroko erosketak egin daitezke proiektu horren barruan dauden 130 denda, taberna, jatetxe eta zerbitzu-lekuetan. Hala, interesa dutenek %20ko beherapenak izango dituzte, txartelagaz erosketak egitean.

Proiektuan parte hartzen duten enpresek hori ziurtatzen duen pegatinak itsatsita dauzkate euren erakusleihoetan. Era berean, Getxo Enpresaren eta Getxoko Udalaren webgunean kontsulta daiteke zer establezimenduk parte hartzen duten egitasmoan. Interesa dutenek bonuak eros ditzakete Kutxabankeko zerbitzu orotariko kutxazainetan, eta Getxo Enpresaren



Azaroaren 30era arte erabili ahal izango dira.

webgunean. Kreditu edo zorpeko txartel bakoitzagaz, bonu bi eros daitezke gehienez ere.

Getxo Enpresak eta Udalak bultzatutako ekimen horren helburua merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-enpresen jarduera areagotzea da, Gabonen aurreko denboraldian; izan ere, «garai horretan gutxiago kontsumitzen da», ohartarazi dute antolatzaileek. ◀

Abenduaren 9ra arte izena eman daiteke Erakusleihen Lehiaketan

Abenduaren 9ra arte zabalik egongo da izen-ematea Getxoko Erakusleihen Lehiaketaren 25. edizioan parte hartzeko. Horretan, Getxo Enpresako kideek eta kideak ez direnek parte har dezakete, erakusleho fisikoaren edo birtualaren (webgunea) modalitateetan. Epaimahai aditu batek ebaluatuko ditu erakusleho fisikoak zein birtualak, abenduaren 10etik 15era bitartean. Abenduaren 14tik 15era bitartean, osteratzen, herritarrek gogokoen dituzten erakuslehoak aukeratu ahal izango dituzte.

Aurtengo edizioan, 25 sari baino gehiago banatuko dituzte parte-hartzaileen artean: bidaiak, otzarak, publizitate-moduluak hedadura handiko hedabideetan, diagnostikoak hobekuntza-proposamenakaz, eta opari-txartelak, besteak beste. ◀

info+: www.getxoenpresa.com

Bariku Beltza Algortan, % 10 eta % 20 arteko beherapenakaz

Hotza eta euria heldu dira daborduko, negua heltzeaz dagoelako seinale. Horregaz batera, Gabonak ate joka ditugu, horrek dakarren gutti-guztiagaz: oporrak, erosketak, opariak, bazkariak eta afariak, besteak beste. Hori dela-eta, ospakizun horien atarian, kontsumitzaileei «lasaialdi» bat emateko asmoz, Algortako merkatariek merkealdi berezia antolatu dute hilaren 27rako: Bariku Beltza.

Egun osoan, Algortako 16 dendak % 10, % 15 eta % 20 arteko beherapenak eskainiko dituzte euren produktuetan. Ekimen horretan, honako establezimenduek parte hartuko dute: Gaztañaga Intersport, Kafezale, Scras, Julia Learra, Kala, Pekes Shoes, Conformata, Next, Adore, Irati, Maritaja, Crisys, Emily Uranga, Iñaki Bi, Berezi, Mabe eta Kantxa Kirol Moda. ◀

facebook: [algortakodendak](https://www.facebook.com/algortakodendak)



AZAROAK

27

28

29

NOVIEMBRE

2015

GETXOKO XXXII.

ESKULANGINTZA AZOKA

XXXII FERIA DE

ARTESANÍA DE GETXO

78 SALTOKI | 78 PUESTOS

20 ESPEZIALITATE | 20 ESPECIALIDADES

HAURRENTZAKO TAILERRAK | TALLERES INFANTILES

AREETAKO

GELTOKIA PLAZA

PLAZA ESTACIÓN

DE LAS ARENAS

ORDUTEGIA | HORARIO:

11:00-14:30 | 17:00-21:00

LARUNBATEAN, 21:30AK ARTE

SÁBADO, HASTA LAS 21:30

SARRERA DOHAINIK | ENTRADA GRATUITA

ANTOLATZAILEAK | ORGANIZA

Getxo

Getxo

BABESLEAK | PATROCINAN

BFA DFB

ASSAULTS DEKARRETT

bbk

EL CORREO

LAGUNTZAILEA | COLABORA

metro bilbao

Getxo

Martxan da bertoko 180 enpresa sustatzeko plana

Getxoko enpresek aukera izango dute hilaren 30era arte euren eskaintza «Getxon gozatzeko Planak 2016» egitasmoa batzeko. Udalerrian egin daitezkeen esperientzia turistikoaren eskaintza osoa batu gura dute egitasmo horretan, «formatu xume eta ikuserrazean, eta hainbat hizkuntzatan». Bertakoa izan edo Getxon jarduera nagusia duen edozein enpresak egin dezake bat egitasmoagaz, bisitarien zein turistek zerbitzu edo esperientziak eskaini ahal badizkio. Guztiz doakoa da enpresentzat. Euskarri horrek

turismoan oinarritutako 180 enpresaren eskaintza sustatu eta zabaltzen du, eta bere helburua honakoa da: batetik, ezagunagoak diren baliabideen aurrean, aukerako beste plan batzuk proposatzea; bestetik, udalerrira etorriko diren turistek eta bisitarien egoaldia luzatzea. Horrez gainera, bertoko enpresetan eta Getxo osoan eragin ekonomiko handiagoa lortzea du helburu. Guztira, 2016an 25.000 ale banatzea aurreikusitako dute. ◀

harremanetarako: 944 910 800
infoturismo@getxo.eus.

Liburutegiak balioan ipintzeko jarduerak egingo dituzte

Dauzkaten baliabideen eta antolatzen dituzten jardueren bitartez, liburutegiak topagune eta bizikidetzarako gune bihurtzea gura du Liburutegiak Topaleku programak. Ekimen horrek kultur baliabideak udalerriko biztanle guztiei hurreratu gura dizkie, immigranteen komunitate handien herrialdeetako arte-sorkuntza eta ekoizpena nabarmentzeagaz batera. Horretarako, kultura arteko bizi-

kidetzaren balioak sustatzen dituzten liburutegien jarduerak eta erabilerak bultzatuko dituzte; liburutegi horiek zigilu batez egongo dira identifikatuta. Hala, liburutegien Harrera Gida egingo dute, liburutegiak liburuak kontsultatzeko eta hartzeko lekuak baino gehiago direla azaleratzeko. Hilaren 28an, zapatuan, kulturen arteko jaia egingo dute Algortako Villamonteko kultur etxean, 17:30etik aurrera. ◀

Urrunetik TAO ordaintzeko aplikazioa eskura dago

Daboduko, telefono mugikorraren bitartez ordain daiteke Getxoko aparkaleku araupetua. Neurri horregaz, erabiltzaileek ez dute parkimetroa joan behar izango. TAO zerbitzuaren enpresa esleipendunak prest dauka dagoeneko aplikazio berria: EysaMobile. Aplikazio horrek ordezkatu egiten du aurreko kontratua amaitzean zerbitzuz kanpo lotu zen web bitarteko or-

dainketa. Ohiko eragiketak egiteaz gainera, txartelaren denboraren amaieraz ohartarazten du aplikazioak, eta ordaindutako denbora luzatzeko aukera eskaintzen du, parkimetroaraino joan behar barik. Urrutitik ordaintzeko aplikazioak hainbat hiritan funtzionatzen du jada; beraz, ziena ematean, hiria aukeratu beharra dago. ◀

harremanetarako: 918 260 277

Erandio

Ekitaldi internazionalista bat hartuko du Astrabuduak

Barikuan, «Hego Amerika berriaren kolore eta ahotsak» topaketa izango da Astrabuduan. 18:00etan, eta argazki-erakusketa ere egingo dute Josu Murueta kultur etxean. Ostean, 19:30ean, etorkin hegoamerikarrez eta Latinoamerika eraikitzeaz mintzatuko dira. Azkenik, 21:00etan, elikagaien

eta artisautzaren erakusketa paratuko dute plazan, dantzaz eta musikaz alaituta. Ekimena Jorge Freytter elkarteak eta Erandioko hainbat hegoamerikarrek antolatu dute, Ahal Dugu eta EH Bilduren babesagaz. Erandiok Kolonbiaren bake-prozesuari babesa emateko mozioaren jarraipentzat jo dute. ◀

Hiria antiojo moreez ikusteko ekimen bi

Erandion aurrera doaz Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren ekitaldiak. Biolentzia matxista salatzeko elkarretaratzeak eta autodefentsa tailerrak eginda, Udal Berdintasun Zerbitzuak pare bat ekimen antolatu du datozen eguaztenerako eta eguenerako, abenduaren 2an eta 3an.

Eguaztenean, genero-ikuspegia duen hiri-diagnostikoaren aurkezpena egingo dute Behargintzako egoitzan, Desanexio kalean, 19:00etan. Bertan, emakume taldeak auzoz auzo egin den diagnostikoaren ondorioen berri emango dute. Abenduaren 3an, berriz,



El Cairo 678 filma emango dute eguenean. © NCP

El Cairo 678 film egiptoarra eskainiko dute, leku berean, 18:30ean. Ostean, Isabel Bernal autodefentsa irakasleak berbaldia emango du. ◀



Itsasertzetik

GUILLERMO MALAINA MARTINEZ
Irakaslea

Geure naturaren kontra

Euskal literaturan hainbat erreferentzia aurki ditzakegu Euskal Herriko mendi berdeak abiapuntu hartuta. Literatura *hurbilean* ere ezaugarri bera nabarmena da, akaso, Errenazimentutik idazleek naturari begira egoteko joera galdu ez dutelako. Edertasuna ei da inspirazio iturri eta norberaren sormena areagotu egiten da, udaberriko kolore bizien begiraldian zein udazkeneko hosto lehorraren kontenplazio malenkoniatsuan. Hala ere, naturak orain ez du poetariek behar, heroiak baizik. Gure mendi, zelai eta haran berdeak horixkatuz doazelako. *Pampako luma gendorra* landare inbaditzailea da erruduna eta geure naturaren kontra doa. ◀

LUBERRI
Basolanak S.L.
LOREZAINZA

SGS
Nº 85100014

SGS
Nº 85100015

ISO 9001

- **Soropila Ezartzea**
Lurzorua prestatzeko lanak, drainatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtzioak organitzatze lanak eta enbete lanak.
- **Soropila zaintzea eta mantentzea**
Moztea, ureztatzea, organitzatzea, eguraztea, aratzea eta desbarkatzea, berrikuntzea, soropila gaitzak eta belar gaitzak tratatzea.
- **Inausketak**
Hazteko, mantentzeko, berrikuntzeko, zuhaitza apainatzeko inausketak, esabateko inausketak.
- **Barrukaldeak lorategi bihurtzea**

Axpe (ibaieria 28A behelko solairua B12 lokala) [ERANDIO] Meg: 629 41 18 38 - Tf: 94 467 17 13 - Fax: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net - www.luberr.biz

GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

txakoli
motaTx
ganeTx
txakolina

leioa Urbe enpresa 34 (Alameda Parke) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 - www.txakolimotagane.com

Taberna Berri

Sarrikobaso 4 - ALGORTA. Tf: 94 430 64 93

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gubi denik ez prentsa"
Prentsa - Frutu lehorak - Aldizkariak - Litxerariak
Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

Erandio

Erabiltzetik erabizitzera

Euskararen Nazioarteko

Eguna gogoz ospatuko dute Erandion. Euskaltzale ugari batu da antolaketan.

Azken urteotan legez, hamai-ka talde, elkarte eta pertsonak parte hartu du aurten Euskararen Egunaren harirako ekitaldiak prestatzen, auzolanean. «Euskarak 365 Egun Erabili, Erabizi» goiburuagaz, kultur eskaintza handia izango da Erandiogoikoan, Astrabuduan eta Altzagan, azaroaren 27an, 28an, eta abenduaren 3an, hurrenez hurren. Antolatzaileek azpimarratu dutenez, «euskara ez dela egun bateko edo funtzio gutxi batzuetarako hizkuntza aldarrikatu gura dugu Erandioko euskaltzaleok».

Deialdi horregaz bat egin dute, honako eragileek, besteak beste: Eran-



Ikasleek ere atxikimendua erakutsi diote euskarari. © BERBOTS

dioko Musika Eskolak, Goi-Alde, Tra-
budu eta Uztargi dantza-taldeek,
ikastetxeek, IGEek, EGak, Gautxorik,
udalerriko abesbatzek eta kantaguneak,
Auzokoa Herriko elkarteak, Gu-
rari txistulari-taldeak, Erandioko Kirol
Elkarteak eta Berbotsek. Era berean,

Euskara Zerbitzuaren babesa izan
dute. Erakunde horrek eta Berbotsek
berbodromoa antolatu dute abendu-
aren 3rako. Euskaltzaleak izango dira
Itziar Ituño aktorea, Maria Rivero eta
Iker Villa musikariak eta Alberto Iñu-
rrategi eskalatzailea. ◀

Egitaraua

Azaroak 27, barikua

17:00 Txistulariak eta umeentzako tailerrak, Erandiogoikoan.

18:30 Ipuin-kontalaria.

19:15 Bertso-papera eta koreografia.

19:50 Kalejira, Gizarte-etxetik plazara.

20:15 Triki-kanta jira, eta soka-dantza.

22:00 Euskal kanta-afaria, Taberna Ibiltariagaz, Dandaka jatetxean. Sarrerak aurretik salgai daude tabernan, 20 euroan.

Azaroak 28, zapatua

12:00-15:00 Umeentzako tailerrak, dantza, txalaparta, trikitilari, pandero-joleak eta bertsolariak, Josu Murueta plazan.

Abenduak 3, eguna

10:00 Berbodromoa, Itziar Ituño aurkeztuta, eta Alberto Iñurrategi, Maria Rivero eta Iker Villaren parte-hartzeagaz, Altzagako Azoka zaharrean.

11:30 Txokolate-jana, Azoka zaharrean.

18:30 Kalejira, Irailaren 23a plazatik.

Ondoren Euskarak 365 Egun Erabili, Erabizi ekitaldia Erandioko metro-geltokiaren aurrean. Eurria bada, Azoka zaharrean.

9. orrialdean daukaguen kartela ebaki eta jarri erakuslehoetan.



Berbodromoa

Itziar Ituño aurkezle

Parte hartu!

Txokolate beroa eta bizkotxoak partaide guztientzat!

Abenduaren 3an Altzagako azoka zaharrean

10.00-11.30

Alberto Iñurrategi

Maria Rivero

Iker Villa

Euskararen Eguna

ANTOLATZAILEAK:

BABESLEAK:

Leioa

«Euskararen alde zer emateko prest zaude?»

Konpromisoen Liburua aurkeztuko dute abenduaren 3an; euskararen alde zer egin dezaketen pentsatzeko aukera edukiko dute herritarrek eta taldeek, udaberrira arte.



Euskararen alde urratsen bat emateko prest dagoen edonork parte hartu ahal izango du.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Berbalamiñe euskara taldearen desagerpenak utzitako hutsuneari aurre egiteko, Konpromisoen Liburua asmatu dute Leioan. Abenduaren 3ko ekitaldiak antolatzen dabilen lagun-talde baten ordezkariak baino ez dira Iratxe Marta (AEK) eta Josu Esnaola (Berbal-dun egitasmoa).

Zeintzuk zabiltzate Euskararen Eguneko ekitaldiak antolatzen?

Iratxe Marta: Ez dago eragile zehatzik; herritarrek batu gara. Korrika Batzordean talde desberdinetako ordezkariak elkartu ginen. Baina lasterketa

igarota, euskara-teknikariak hordagoa bota zigun: abenduaren 3rako guk geuk, herritik, zeozer antolatzea gura zuen. Izan ere, Udalak zuzenean jotzen badu herritarrengana edo herriko elkarteengana, ohikoena da gehienek atzera egitea; burokratikoagoa edo ofizialagoa ikusten dute, agian. Korrika garaian, gu hurbildu ginenean laguntza eske, inplikazio oso handia lortu genuen; hortik jo nahi genuen abenduaren 3aren inguruan herrian zeozer gehiago pizteko asmoz.

Euskararen Eguna abiapuntua baino ez da, ezta?

Josu Esnaola: Norbanako, elkarte edo eragile bakoitzari euskararen alde zer

egiteko prest dagoen galdetu gura diogu; liburu batean jasoko ditugu konpromiso horiek guztiak. Ekimena abenduaren 3an aurkeztuko diegu. Hala ere, jakitun gara egun horretarako tarte gutxi izango dutela eragileek euren artean hitz egiteko eta zer egingo duten erabakitzeke. Hala, neguan taldeekin batera landuko ditugu bakoitzaren konpromisoak; udaberrian ekitaldi edo jaitxo bat egingo dugu horiek guztiak liburuan idatz ditzaten.

I.M.: Beharrezkoa da Leioako euskaldunak egituratzea; bakoitzak bere esparruan egiten du lan. Indarrak metatu nahi ditugu, Konpromisoen Liburuan irudikatuz.

Hutsunerik utzi du Berbalamiñe euskara-elkartek?

J.E.: Berbalamiñe zen irakaskuntzatik edo euskalduntzetik kanpo euskararen arloan lan egiten zuen elkarte bakarra. Zaila ikusten dugu halako beste elkarte bat bultzatzea, ezinezkoa ez esateagatik. Hori dela-eta, beste bide bat jorratzeko beharra ikusi dugu.

Ez dago konpromiso txikirik...

I.M.: Udaberrira bitartean, bere neurriko konpromisoa lantzeko aukera izango du herritar zein eragile bakoitzak. Elkarte batzuk erdaldunak dira, eta beste batzuk, euskaldunak; bere neurriko konpromisoa hartu beharko du bakoitzak.

J.E.: Ez zaizkio inori ateak itxiko; erdaldunek ere parte hartu ahal izango dute, beti ere prest badaude urratsen bat emateko euskararen alde. ◀



Txapa jantziko du euskaraz egin gura duenak.

Abenduaren 3an euskara kalean entzutea gura dute

Euskararen Eguna ospatzeko asmoz, hainbat ekitaldi antolatzen dabiltza. Konpromisoen Liburua aurkezteaz gainera, abenduaren 3an gure hizkuntzaren presentzia ziurtatu gura dute herrian; hori lortzeko, *Gaur egun on, bihar egun osoz* kanpaina abiatuko dute. Antolatzaile-taldeko Iratxe Martak eta Josu Esnaolak azaldu dutenez, «euskara erabiltzeko prest daudenak identifikatu nahi ditugu; gutxienez, egun horretan bakoitzak dakien euskara, apur hori bada ere, ateratzea da asmoa». Horretarako, txapak banatuko dizkiete herritarrei; hala «jakingo da ikur hori daraman pertsonarekin euskaraz egin ahal dela». Ikastetxe zein ikastolen bitartez, txapa guraso denei heltzea bermatu gura dute; udal langileek ere ikurra eroatea beharrezkotzat jo dute. Denera, bost mila txapa banatuko dituzte herrian.

Beraz, herritar taldeak zein Udalak hainbat ekimen antolatu dutte Euskararen Eguna dela-eta, barbarako: ◀

Egitaraua

Azaroak 27, barikua

21:00 Oreka TX taldearen *Silex* txalaparta-ikuskizuna, Kultur Leioan. Sarrera: 15 euro.

Azaroak 29, domeka

12:30 *Kalekantuka*, Doniene abesbatzagaz, Kultur Leioatik Udondoko bulebarrera.
18:00 *Magiklown* ikuskizuna, Sakonetan.

Abenduak 3, eguna

Egun osoz, *Egun on* kanpaina, herrian.
09:30-13:00 *Euskararekin jolasean* izeneko ekimena Boulevarden eta Sakoneta kiroldegian.
17:00 Puski eta Txuruskiren *Pilo, pilo, korapilo* ikuskizuna, Kandelazubietan.
18:00 Txokolatada, Kandelazubietan.
19:00 Konpromiso Liburuaren aurkezpena, Kandelazubietan kiroldegian.
19:30 *Barry barrez* umore-bakarriketa, Barry Manley irlandar euskaldunagaz, Kandelazubietan kiroldegian.

Abenduaren 5etik 8ra

17:30 *Marko makako* umeentzako filma, Kultur Leioan. Sarrera: 3,50 euro.
20:00 *Amama* filma, Kultur Leioan. Sarrera: 4,50 euro.

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO IKASTOLA

0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez! Tlf. 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net

I

Iñaki Bitxitegia

MONTBLANC, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tlf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tlf. 94 460 27 41

Algorta

Sopela



Geltokia dantza-ikuskizuna abenduaren 3an izango da, Kurtzion. © AUKERAN DANTZA TALDEA

Euskara egunak, barikutik aurrera

Bertsojira, Kirolean Euskaraz, antzerkia, Ines Osinaga, zein *Geltokia* eta *Kontu eta kantu* ikuskizunak.

A benduaren 3an izango da Euskararen Eguna, eta Sopelan, hainbat ekitaldi prestatu dute horren harira. Hona hemen egitaraua, egunez egun.

Azaroak 27an hasiko dira ekitaldiak, barikuan. Bertsojira egingo da herriko tabernetatik, Sustrai Colina eta Peio Arondo bertsolariakaz eta Oxabi erromeria taldeagaz batera. Pilotalekutik hasiko da, 20:00etan.

Abenduaren 2an, eguaztenean, Kirolean euskaraz ekitaldi-omenaldia egingo dute Zipiriñe eskolan. Urteotan egindako ahalegina aitortzeko asmoz, Kirolean Euskaraz egitasmoan parte hartu duten elkarte, futbol-klub, entrenatzaile zein umeei sariak eman-

go dizkiete. Bertan izango dira Koikili Lertxundi eta Athleticeko jokalaria batzuk. Gainera, hainbat kirol-jarduera parte-hartzaile egingo dira.

Egun horretan ere, Ines Osinaga musikariak bisitatuko du Sopela, eta kontzertu didaktikoa eskainiko die ikasleei; beragaz hitzordua kultur etxean izango da, 11:00etan.

Abenduaren 3an, eguna, *Geltokia* ikuskizuna taularatuko du Aukeran dantza-taldeak, hori ere kultur etxean. Dantza tradizionalaren eta garaikidearen mestizajearen oinarritzen da taldea. Emanaldia 20:00etan hasiko da, eta sarrerak 6 euroan eros daitezke.

Abenduaren 5ean, zapatua, *Kontu eta kantu* ikuskizuna eskainiko du Fernando Anbustegik. Kontuak eta kantuak uztartzen dituen ikuskizuna da; ipuin eta bertso berriak eskaintzen ditu, garai berriei egokituak. Kurtzio kultur etxean izango da, 18:00etatik aurrera, doan.

Gabonetako kolonien izen-emateak txanda bitan egingo dituzte

Gabonetako kolonietan izena emateko epea laster zabalduko da, eta parte hartu gura dutenek txanda bitan egin beharko dute: Sopelan erroldatuek abenduaren 1etik 9ra egingo dute, eta, ez-erroldatuek, abenduaren 10etik 13ra. Izena emateko lekuak hauek dira: Kurtzio Kultur Etxea, udaletxea eta Sopelarin; Internet bidez ere egiteko aukera egongo da: www.sopela.eus.

Koloniak abenduaren 21etik urtarilaren 5era izango dira, asteleheneetik barikura (aste-akabuak eta jaieguna izan ezik), 09:00etatik 14:00etara, Kurtzio kultur etxean. Hala ere, umeak 08:30etik 14:30era bitartean egon ahal izango dira, nahi izanez gero. Programa euskaraz egingo da, 4 eta 12 urte bitarteko umeei dago zuzenduta (abenduaren 31 baino lehen bete badituzte). Prezioak: Sopelan erroldatuek 60 euro ordainduko dituzte (2. neba-arrebak, 47 euro; 3. neba-arrebak, 40 euro eta oinarritzeko errenta jasotzen dutenek, 36 euro). Sopelan ez-erroldatuek, berriz, 105 euro. Ordaintzeko modua: banku helbideratzearen bidez, edo txartelagaz. Mugatua izango da leku-kopurua: 60 leku egongo dira (gutxienez 10 lagunekoko taldea sortzea beharrezkoa izango da eskaintza aurrera eroateko). ◀

info+: www.sopela.eus. ◀

Ander Deuna Eguna ospatuko dute astelehenean

Ander Deuna Eguna ospatuko dute, Azaroaren 30ean, astelehenean. Eguerdiko 11:00etan kalejira abiatuko dute udaletxetik Ander Deuna baselizarantza, bertan meza entzuteko. Ondoren ohorezko aurrekua, hamaiketako eta erromeria eskainiko dituzte. Autobus-zerbitzua ipiniko dute, Urba-so tabernetatik irtenda.



Gramofono ixila

LANDER
UNANUE MENDIGUREN
Abarkatxo

Ospatu beharreko egunak, zure aukeran

Orain arte ez nuen *Black Friday* eguna ezagutzen, agian, atzerrian urte batzuk eman ditudalako. Dena dela, ostiral hori, neguko egun arrunt bat zen orain arte niretzat behintzat.

Egun horren ospakizuna zein herrialdeetatik zetorren susmatu arren, *wikipedian* begiratu behar izan dut egiaztatzeko. Eta *Black Friday*-arekin antzekotasunik duten beste jaiegunez hasi naiz pentsatzen, oparien aitzakian, kontsumoan oinarritzen direnak. Hala nola, Ama eta Aitaren Eguna, San Valentinak, eta batez ere, interneteko salmentetan mundu mailan marka guztiak hautsi dituen Ezkongabeen Eguna, Txinan.

Ospatu beharreko egunak diren arren, esentzia hori ezkutarazten duten iragarkiez betetzen zaigu burua. Gainera, orain Gabonak datozela, antzeko gauza bat gertatuko da, argi, pinu eta hutsik dauden kartoizko kutxak opari-paperez estaliz. Azkenengo honen jatorria ordea, guztiz ezberdina da, iraganeko ohitura zaharren datekin nahastua izan dena beharbada, eta orain auskalo zer bilakatu dena. Bakoitzak bizi dezala berea.

Badira Nazioarteko egunak ere, eta batzuk nahiko deigarriak iruditu arren, batek baino gehiagok ospatuko lituzkeenak: Zoriontasunaren Nazioarteko Eguna (mar 20), Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna (aza 25), Olerkigintzaren Nazioarteko Eguna (mar 21), Muxuaren Nazioarteko Eguna (apr 13), «Orgullo Friki» Eguna (mai 25), Sushiaren Nazioarteko Eguna (eka 18), Zuhaitzaren Eguna (eka 28), Laguntasunaren Nazioarteko Eguna (uzt 30) eta abar. Zeintzuk ospatzen dituzu zuk? Ez dira egun libre asko geratzen egutegian eta hobe duzu Zure Nazioarteko Eguna lehen bai lehen aukeratzea... edo zer demontre! Edozer ospatzeko ez duzu horrelakorik behar. Egunero baita zure eguna! ◀



Haur Hezkuntzatik Batxilergora

Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus



Urduliz

Euskal mitologia, bertsolariak eta poteo musikatua martxan, Euskararen alde

Abenduaren hasieran ekingo dio-
te Urdulizen Euskararen aldeko ekimenak egiteari. Bada, abenduaren 2an egingo dute Euskararen Egunaren harirako lehenengo ekimena; *Azken eguzki-lorea* antzezlanak aurkeztuko dute egun horretan, Urdulizko kultur etxean. Patata Tropikala taldeak ohol-tzaratuko du antzerki-lana, arrastiko 06:00etatik aurrera. Horregaz, hurbildutako neska-mutiek euskal mitologiako jeinu, jainkosa eta beste pertsonaiak ezagutzeko aukera izango dute; esaterako, Mari eta Tartalo.

Euskararen Egunean, abenduaren 3an, oster, «triki-bertso-poteoa» egingo dute herritik. Horretarako, Aitor Esteban eta Josu Landeta bertsolariak hurreratuko dira udalerrira, Basartena tabernatik hasita, jai-giroan euskararen aldeko poteoa egin, eta denek gozatzeko. ◀

Berango

Euskarari gorazarre egiteko, dena prest

Euskaraz bizi nahi dut» goiburagaz, adin guztiei begirako astebeteko egitaraua prestatu du Udalak Euskararen Egunaren harira. Hilaren 30ean, astelehena, eguzki-lore tailerra egingo dute, 16:30etik 18:00etara. Ondoren, 18:00etatik 19:30era, Barreterapia-saioa egingo dute, haur-liburutegian. Hurrengo egunean, sukaldaritza-tailerra egingo dute 16:30etik 18:00etara. Ostean, dantza-saioa euskaraz egongo da haur-liburutegian, 18:00etatik 19:30era. Eguaztenean, abenduaren 2an, mosaiko eta txalaparta tailerrak egingo dituzte, 16:30etik 18:00etara, eta 18:00etatik 19:30era, Berangoetan eta haur-liburutegian, hurrenez hurren. Eguenean, 16:30etik 18:00etara *Perler Beads*-en tailerra izango da; gero, Martinbertsok ipuina kontatuko du neska-mutien gozamenerako, haur-liburutegian,



Euskal Jaia egingo dute abenduaren 4an.

18:00etatik 19:30era. Azkenik, Euskararen Astea-ri egundoko amaiera emateko, Euskal Jaia antolatuko dute abenduaren 4an, barikuagaz. Horretan, taloa eta txistorra dastatzeko aukera izateaz gainera, musika euskaraz entzun eta dantatzeko aukera egongo da. Txalapartakoa izan ezik, gainontzeko tailer guztiak Berangoeta kultur etxean izango dira. ◀

Ia milioi bat euro bideratuko du Udalak Arenako industrialdean

Udalak ia milioi bateko inbertsioa egingo du Arenako industrialdea urbanizatzeko. Hala, inguru horren urbanizazio-prozesua abiatzeko obren esleipena martxan ipiniko dute gutxi barru; lanen exekuzio-epea urbetekoa izango da, eta 945.186 euro bideratuko dituzte horietarako. Lanon bitartez, zerbitzuak ontzeaz gainera, udalerriko «irudia» hobetzea du helburu Udalak.

Lan horien lehenengo fasean, inguru guztia ordenatuko dute, Arana bideko 16 eta 36 zenbakietatik hasita. Hala, azpiegitura eta zerbitzu berriak izango ditu, lantegietarako sarre-ra-irteerak hobetze aldera. Halaber, inguruko irisgarritasuna hobetzeaz gainera, argiteria ere eraberrituko dute, *led* farolakaz. Era berean, apartakaleku publiko bat egingo dute kalearen hasieran, inguruan bizi diren auzokideentzat. ◀

Lemoiz

Ekimen ugari antolatu dituzte Euskararen alde egiteko

Euskararen Eguna gogoan hartuko dute lemoiztarrek ere beste urte batez. Horretarako, hainbat ekimen antolatu dituzte egun horren atarian. Abenduaren 1ean, Armintzan bizi den Aritza Bergara sestaoarrak euskara eta euskal mitologiaren inguruko berbal-dia emango du; hitzordua 19:00etan ipini dute, Armintzako kultur etxean. Hurrengo egunean, eguaztenagaz, Martinbertso ipuin-kontalariak saioa eskainiko du Urizarreko kultur etxean, 18:00etan. Abenduaren 3an, Euskararen Egunean bertan, herritar guztiek eguna ospa dezaten disko-festa egon-



Barry Manley irlandar euskalduna.

go da, eta txokolate beroa banatuko dute Armintzako frontoian, 17:30ean. Abenduaren 5ean, *Barry Barrez* bazarriketa eskainiko du Barry Manleyk 19:30ean, Armintzako kultur etxean. ◀

Barrika

Euskararen Eguna ospatuko dute aste-akabuan

Abenduaren 3an Euskararen Eguna ospatuko dute Euskal Herriko hainbat herritan. Hori horrela, Uribe Kostako herri guztiek egun horri begirako ospakizunetan murgilduko dira, tartean Barrika. Azaroaren 27an, barikuan, hasiko dituzte ospakizunak. Arrastiko 19:30ean «bertso-triki-poteoa» abiatuko dute Iparalde tabernatik. Ondoren, 21:00etan bertso-afaria hasiko dute nagusien etxean (txartelak erosteko azken eguna azaroaren 22a izan da).

Hurrengo egunean, hilaren 28an, Monda Lironda pailazoen *Baietz lortu!*

antzezlanak eskainiko dute, nagusien etxean, 18:00etatik aurrera. Ordubete beranduago, oster, txokolate beroa banatuko dute bertaratzen direnen artean. ◀

Egitaraua

Azaroak 27, barikua

19:30 «Bertso-triki-poteoa».

21:00 Bertso-afaria, Nagusien Etxean.

Azaroak 28, zapatua18:00 *Baietz lortu!* antzezlanak.

19:00 Txokolate beroa banatuko dute.

Ander Deuna Eguna ospatuko dute hilaren 30ean Goierrin

Urtero lege, azaroaren 30ean Ander Deuna Eguna ospatuko dute Barrikako Goierrri auzoan. Horrenbestez, 11:00etan meza egingo dute santu horren omenezko basilizan. Hori amaituta, 11:45ean, emanaldia eskainiko du Aita Gotzon abesbatzak. Ondoren, 12:15ean, Beñat Vidal eta Fredi Paia bertsolariek kantatuko dute, 12:45ean tripak asetzeko mokadutxoak jateko aukera egongo da. ◀



Ander Deuna basilizan egiten dute festa.

TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Aritzu z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

OSTBIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, beheko eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

EUSKARAK 365 EGUN

erabizi



www.365egun.eus

Orri hau kartel moduan erabiltzeko da. Beraz, ikusgarria den lekurik gustukoenean itsastera anima zaitezte!

OPA DIZUEGUNA OSPATUZ!



11:00 **IPUIN-KONTALARIA** 11:00 **ARGAZKIGINTZA-TAILERRA** 11:30 **BERBA-KAFEA**
12:00 **FAMILIENTZAKO GINKANA** 13:00 **BERTSO-POTEOA** 15:00 **HERRI-BAZKARIA**
18:00 **ELEKTROTXARANGA** **AZAROAK 28, ALGORTAN**



Plentzia

Euskara omenduko dute zapatuan eta eguenean, itsas hiribilduan

Egitaraua

Azaroak 28, zapatua

18:00 Tomaxen Abenturak taldearen antzezlan berria: *Txipli-txapla*; «Hondartzara joango zarete Tomax eta Muxugorrigaz batera?». Plentziako Jai-Alai frontoian.

Abenduak 3, eguena

19:00 Gorliz eta Plentziako gazteek zein helduek euskal musikaz gozatzeko aukera izango dute, Hesian taldeko Fran eta Zuriñeren kontzertu akustikoagaz. Plentziako PIE aretoan.

Abenduaren 3an Euskararen Eguna da. Hori dela-eta, urtero legez, Euskal Herriko udalerriek euskara kalera atera eta gogoan hartzeko hainbat ekimen egingo dituzte egun horren harira. Plentzian, berbarrako, azaroaren 28an abiatuko dituzte Euskararen aldeko jarduerak. Bada, zapatu horretan, Tomaxen Abenturak taldeak antzezlan berria taularatu du Jai-Alai frontoian: *Txipli-txapla*. Hotzak eta euriak bete-betean jo gaituenean, antolatzaileek ikus-entzuleei

galdera bat botako diete: «hondartzara joango gara Tomax eta Muxugorrigarekin batera?». Hurrengo ekimena abenduaren 3an izango da, eguenagaz. Euskara gogoan hartzeko egun horretan, Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Hesian taldearen kontzertu akustikoa antolatu du 19:00etarako, Plentziako PIE aretoan. Bertan izango dira Fran eta Zuriñe, talde horretako kideak, Gorliz eta Plentziako gazteek zein helduek euskal musikaz gozatu ahal izateko. ◀



Tximiskeriak!!

AITOR
GARAGARZA CAMBRA
Langilea

Gorliz, Plentzia; sare sozialak eta identitatea

Gustuko izan ala ez Sare Sozialak gaur egun errealitate bat dira. Zuzenean edo zeharka, gure egunerokotasunean txertatuta daude. Politikan, lanean, lagun artean edota herriaren parte dira. Sare sozialen bidez, identitateak sortzen dira, esparru politikoetan hauen pisua areagotu da, eta ligatzerako orduan zer esanik ez, harremanak izateko formak zein munduan bizitzeko ohiturak guztiz aldatuz. Hauek izan ahal dituzten erabilerak antzak dira.

Gurean, Plentzia eta Gorliz, bi Facebook talde sortu dira, *Plentzia, la perla del cantabrico* eta *Talka Gorliz Plentzia* deiturikoak. Biak ala biak herriaren inguruko identitatea eraikitzen dute. Lehenengo taldeak 2.000 jarraitzaile inguru ditu eta, bigarrenak, 500 inguru. Bi talde horien atzean musu-truk lan ugari egiten duen jendea dago, argazkiak igotzen, agenda kulturala edo herriarekin zerikusia duen edozein albiste zintzilikatzen...

Baina badaude bestelako erabilerak eta, batez ere, aipatutako lehenengo taldean batzuk herriari buruz sortzen ari diren identitatea kezkatzen nau. Akaso ez dira ohartzen horrelako talde batek eskaintzen dituen aukerak oso handiak direla, baina lehenik eta behin, nire ustez, talde baten eta tabloiairen artean desberdintzen jakin beharko genuke. Talde hauetan hainbat pertsonen jokamoldetan nortasun pertsonalari eutsi eta garrantzitsu sentitzearen beharra sumatzen dut sarri.

Gure herriek izugarritzko aukerak eskaintzen dituzte (kulturalak, paisajistiko, ingurumenekoak, kirol arlokoak...), baina hainbat erronka zein arazo ditu. Gure herrietako sare sozialak zertarako erabili nahi ditugu? «Salvame deluxe» izango da gure aurkezpen karta? ◀

Behartsuenen alde jokatzeko zerga-araudia gura du Udalak

Hiribilduko zergak eta tasak berri-kosten hasi da Plentziako Udalak. Jakinarazi dutenez, hamarkadak darozate moldaketu barik; hori dela-eta, azkenengo osoko bilkuran onartu dute Trakzio Mekanikoen Ibilgailuen gaineko zerga eta Higiezinaren gaineko zerga moldatzea, eta herriko lurraldeen balioa handitzea. Hori guztia egiteko eta datorren urteko aurrekontuak aurreikusteko, herritarren egoera so-

ziala eta ekonomikoa kontuan hartzea «oinarrizkoa» dela uste dute udal arduradunek.

Jakinarazi dutenez, alde batetik, Gobernu Taldeak katastroa eguneratzeko eskatuko dio Bizkaiko Foru Aldundiari; bestetik, araudi bat sortzea aurreikusi dute beharrian ekonomiko larrietan bizi direnen aldeko laguntzetarako, eta zergak ordaintzeko modu malguagoak ezartzeko. ◀

Gurasoentzako ikastaroa antolatu du Plentziako Udalak

Plentziako Udalak familia-esparrutik elkarbizitza sustatzeko eta erakitze saioak antolatu ditu. Bertan oinarritzko orientabideak eskainiko dituzte: mugak eta ardurak zelan finkatu, seme-alaben heziketan. Hala, ordu eta erdiko 4 saio eskainiko ditu Juan-kar Alonso psikologoak, 18:00etatik aurrera, Goñi Portalean. Parte hartzeko abenduaren 1etik 10era izena eman beharra dago, Goñi Portalean. ◀

Gorliz

Gorliz «dastatu» egingo dute hilaren 27an, zapatuan

Gorlizko ezaugarriak ezagutarazteko asmoz, «Dastatu Gorliz!» egitasmoa martxan ipini du Udalak. Hurrengo saioa hilaren 27an izango da, Gorlizko I. Ibilbide Gastronomikoagaz. Horretan, herritarrek hainbat mokadu eta edari dastatu ahal izango dituzte herrian; izena eman beharra dago. ◀



Euskarari gorazarre egingo diote bertoko herritarrek

Urtero legez, Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak hainbat ekintza antolatu ditu Euskararen Egunaren harira. Mankomunitateko herri denetan egingo dira ekitaldiak, Barrika, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizko herritar guztiek euskaraz gozatzeko ekintzak, alegia. Gorliz, hilaren 29an ospatuko dute Euskararen aldeko festa. Egun horretan, udalerrian Euskararen alde lan

egin duen talde bat omentzen dute, eta, aurrean, Aratz Dantza taldea izango da. Hala, eguna alaitzen hasteko, 12:00etan «triki-kantu-dantza-poteoa» egingo dute Elizako enparantzatik hasita, Ibarreta plazaraino; bertan gorazarre egingo diote Aratzi. Ostean, 15:00etan bazkaria egingo dute (bazkarirako beharrezkoa zen alde aurretik txartela erostea, hilaren 20a baino lehenago). ◀

Uribe Kosta

Udalkutxak utzitako diru guztia bueltatu beharko dute udalek

Udalkutxak 2015ean emandako diru-laguntza guztiak bueltatu beharko dituzte 2016an Bizkaiko udal guztiek. Hala adierazi du Ibone Bengoetxea Herri Administrazioa eta Era-kunde Harremanetako ahalguztariak. Iragarri duenez, Aldundia «malgua» izango da, baina ohartarazi du udalek «dena» itzuli beharko dutela. EAEko Finantza Batzordeak zehaztu duenez, udalerriek «48,5 milioi euro» bueltatu beharko dituzte; hala ere, Bengoetxeak iragarri du zenbateko hori alda daitekeela, kalkuluak abuztuan jasotako sarreraren datuak egin baitziren. Hala, datu zehatzak otsailean jakinaraziko dituzte, 2015eko foru-kontuak ordaintzen direnean. Neurri horregaz, udalek datozen aurrekontuetan diru-sarreraren murrizketak islatu beharko dituztela aitortu du Bengoetxeak. Bil-tzarkideek, euren aldetik, «malgutasun handiagoa» eskatu diote Aldundiari, bueltatu beharrekoa hainbat urtetan egin ahal izateko. ◀



LEIOA

Harritzko txalapartagaz txinpartak aterako dituzte

Udagoieneko Ostera kultur zirkuitua-ren barruan, bariku honetan, azaroak 27, *Silex* izenburuko kontzertua eskainiko du Oreaka TX taldeak. Hitzordua 21:00etan ipini dute, Kultur Leioako entzungelari; sarrerak 15 euroan salgai daude. Su-harri izeneko emanaldi hori mugarri bilakatu da txalaparta oinarri duen Oreaka TX proiektuaren ibilbide oparoan; tal-

deak landu dituen azken ikuskizun bien (*Hostoak* eta *Herritmo*) musika jasotzen da bertan. Tresna desberdina-k harritzko txalapartaren inguruan dantzan jartzen dituzte. Zuzeneko honetan, taldearen sonoritate ondu, berezi eta eroso bat eskaintzen dute txalapartaren mesedetan; trebetasunez, bere aukera eritmitiko, melodiko eta armonikoak garatuz. «Afla-

tzetik’ afinatzerari dagoen bidea egin dugu, nagusiki, harritzko txalaparta erabiliz», diote taldekoek.

Gaur egun Harkaitz Martinez de San Vicente eta Mikel Ugarte dira Oreaka TXko txalapartariak. Baina mar-txan dituzten ikuskizun ezberdinetan Mixel Ducau, Iñigo Eguia, Juan Jose Otxandorena eta Amaïur Cajaravillet musikariak osatzen dute taldea. ◀

2015/11/26 - 17:30

Zine-foruma: La verdad oculta

Goñi Portal kultur etxea | Plentzia
Araldi emakumeen elkarteak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/11/26 - 18:15

Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko hitzaldia

San Jose elizako lokaletan (Romo) | Getxo
Gizatear Emakume Elkarteak antolatuta. *Conociendo la realidad sobre la violencia contra las mujeres* berbaldia eskainiko du Sandra Arroyo gizarte-hezitzaileak. Sarrera, doan.

2015/11/26 - 18:30

Zinea, kafea eta berriketa

Berangoeta kultur etxea | Berango
Emakumeenganako indarkeriaren kontra. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/11/26 - 19:30

Irakurzaleen Txokoa: Koldo

Izagirre idazlea

Algortako kultur etxea | Getxo
Loreo Gerrikoa, andrazko bat liburuaz egingo du berba. Euskaraz. Sarrera, doan.

2015/11/27 - 17:00etatik aurrera

Euskararen Eguna ospatzeko dantzak eta jolasak

Erandiogoikoa | Erandio
Besteak beste, txistulariak, umeentzako tailerrak, ipuin-kontalaria, kalejira eta soka-dantza egongo dira. Parte-hartzea, libre.

2015/11/27 - 19:00

El boom de la novela sentimental para jóvenes izenburuko berbaldia

Algortako kultur etxea | Getxo
Josune Muñoz Skolastikakoak berba egingo du. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/11/27 - 19:30

Bertso-triki-poteoa

Iparralde taberna | Barrika
Euskararen Egunaren harira. Herrian zehar. Parte-hartzea, libre.

2015/11/27 - 20:00

Bertso-jira musikatua

Udal pilotalekua | Sopela
Sustrai Colina eta Peio Arondo bertsolariek kantatuko dute, Oxabi musika taldeagaz. Parte-hartzea, libre.

2015/11/27 - 20:30

Plentziako Kantagunea

2015/11/28 - 19:00

Ai ama! antzerkia

Berango Antzokia | Berango
Emakumeenganako indarkeriaren kontra. Helduentzat. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/11/28 - 20:00

Las Lisystratas antzezlan

Kurtzio kultur etxea | Sopela
Emakumeenganako indarkeriaren kontra. Hortzmuga taldeak antzetzuta. Gaztelaniaz. Sarrera: 5 euro.

2015/11/29 - 10:30

Zikloturisten martxa

Nagusien Etxeko plaza | Berango
Emakumeenganako indarkeriaren kontra. Parte-hartzea, libre.

2015/11/29 - 12:00

Dantza-kalejira, Itxartugaz

Basagoiti etorbidea (Algorta) | Getxo
Euskararen Egunaren harira. Emanaldiak eskainiko dituzte Satistegin eta Telletxen.

2015/11/29 - 12:00

Aratz Dantza Taldea omentzeko ekitaldia

Ibarreta plaza | Gortiz
Euskararen Egunaren harira. Triki-kantu-dantza-potoea egingo dute elizako plaza-tik Ibarretara.

2015/11/29 - 12:30

Kalekantuka

Kultur Leioa | Leioa
Euskararen Egunaren harira. Udondoko bulebarrean egingo dute kalejira.

2015/11/29 - 12:30

Umeentzako tailerrak

Udal pilotalekua | Berango
Emakumeenganako indarkeriaren kontra. Parte-hartzea, libre.

2015/11/29 - 18:00

Magiklown ikuskizuna

Sakoneta kiroldegia | Leioa
Euskararen Egunaren harira. Sarrera, doan.

2015/11/29 - 19:30

La maquina del dueño izenburuko antzezlan

Areetako musika-eskola | Getxo
Plataforma Tirante taldeak antzetzuta. Gaztelaniaz. Sarrera: 5 euro.

2015/11/30 - 2015/12/02

Denontzako tailerrak

Haur-liburutegia | Berango

Panpina ekologikoak egiten ikasiko dute


Galtzerdietan lurra eta haziak sartuz, panpinak sortuko dituzte barikuan, 17:30ean, Kultur Leioa ingurura hurbiltzen diren umeek; ura bota heinean, ilea hasiko zaio panpinari. Astero egiten dute Barikuetan Jai egitasmoa. ◀

Yugo eta Lalaren abenturak, ikusgai

Yugo & Lala animaziozko film txinatarra euskaraz ikusteko aukera egongo da domeka honetan, azaroak 29, Kurtzio kultur etxean. Saioa 18:00etan izango da; sarrera, doan. Zinema Euskaraz programaren barruan bikoiztu zuten. ◀

Berdintasuna sustatuz ipuinen bitartez

Genero-indarkeriaren kontrako ekitaldien barruan, *Rol jokoa* izenburuko ipuin-saioa eskainiko du Apika taldeak. Hitzordua domeka honetan (azaroak 29) ipini dute, 18:00etan, Berango Antzokian. ◀



Datorren urtean hobeto, Astrabuduan

Txalo konpainiaren umorezko antzezlan horretan, «bizi-tza-atalak, bakarrizketa laburrak, pentsamenduak...» aurkituko dituzte ikusleek «apaindura eta makillaje barik». Hausnarketak egiteko, hiru antzezle igoko dira oholtzara: Izlar Urretabizkaia, Ainhoa Garai eta Iraitz Lizarraga. ◀

Noiz: Azaroak 26, eguena
Ordua: 20:00
Non: Josu Murreta kultur etxeko areto nagusia (Astrabudua)
Sarrera: Doan

taldearen kantu-jira

Elizako plaza | Plentzia
Aurretik entsegua egingo dute 19:00etan, basilizan. Parte-hartzea, libre.

2015/11/28 - 09:00-19:00

Autodefentsa ikastaroa
Kurtzio kultur etxea | Sopela
Salneurria: 10 euro. Izen-ematea: Itzartu emakumeen elkartea (itzartu@hotmail.com).

2015/11/28 - 10:30

***El buen amor como alternativa a la violencia* tailerra**

Jabekuntza Eskola (Algorta) | Getxo
Mujeres con Voz taldeak antolatuta. Gaztelaniaz. Parte-hartzea, libre.

2015/11/28 - 11:00etik aurrera

Opa dizueguna ospatuz!

Zabala eskola (Algorta) | Getxo
Urteurren-jaiak egingo dute ALBEK, Bizarra Lepoan-ek, Egizuk, Azebarrik eta HIRUKAK. Informazio gehiago: hiruka.eus/agenda

2015/11/28 - 12:00-15:00

Umeentzako jolasak, kale-animazioa eta dantzak

Josu Murreta plaza (Astrabudua) | Erandio
Euskararen Egunaren harira. Doan.

2015/11/28 - 13:00

Albaro Arri Pascual preso politikoaren aldeko argazkia

Satistegi ondoko plaza
«Muni» algotarrak 20 urte beteko ditu espetxean, aurtten.

2015/11/28 - 18:00

***Baietz lortu!* antzezlan**

Nagusien etxea | Barrika
Euskararen Egunaren harira. Monda Lironda pailazoek antzeztuta. Doan. Ondoren, txokolatada egongo da.

2015/11/28 - 18:00

***Txipli-txapla* antzezlan**

Jai-Alai pilotalekua | Plentzia
Euskararen Egunaren harira. Tomaxen Abenturak taldearen lan berria. Doan.

2015/11/28 - 19:00

Nazioarteko Trikiti Jaialdia

Areetako musika-eskola | Getxo
La tupina (Katalunia), La Estatala (Galizia) eta Zango (Euskal Herria) taldeek parte hartuko dute, Zabaleta eta Motriku euskal bikoteagaz. Sarrera: 8 euro. Jaialdia amaituta, Oxabiren Lagunek doako saioa eskainiko dute Algotako Azebarri kultur elkartean (Euskal Herria, 14-16).

ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO
TESTU LABURREN IV. LEHIAKETAREN
ERAKUSKETA

argihizkiak.com

argihizkiak

Azaroaren 16tik
abenduaren 13ra
Villamonteko kultur etxean

Astequinetan
9:00-14:00
16:00-21:30
Zapatuetan
9:00-13:00

egizul



Euskararen Egunaren harira. Astelehenean eguzki-loreak, martitzenean sukaldaritza eta eguaztenean mosaikoak zein txalaparta landuko dituzte; lehenengo hirurak, 16:30etik 18:00etara, eta azkena, 18:00etatik 19:30era.

2015/11/30 - 11:00etatik aurrera

Ander Deuna Eguna

Ander Deuna baseliza | Sopela
Besteak beste, kalejira udaletxetik, meza, ohorezko aurreskua, hamaiketakoa eta erromeria. Parte-hartzea, libre.

2015/11/30 - 12:15

Beñat Vidal eta Fredi Paia bertsolarien saioa

Ander Deuna baseliza | Barrika
Ander Deuna Eguna ospatuko dute, 11:00etatik aurrera, meza, abesbatza, bertso-saioa eta hamaiketakoa egongo dira. Doan.

2015/11/30 - 18:00-19:30

Barreterapia-saioa

Haur-liburutegia | Berango
Euskararen Egunaren harira. Denontzat. Doan.

2015/12/01 - 18:00-19:30

Euskaragaz, dantzan

Haur-liburutegia | Berango
Euskararen Egunaren harira. Denontzat. Doan.

2015/12/01 - 19:00

Martinbertso ipuin-kontalaria

Urizarreko kultur etxea | Lemoiz
Euskararen Egunaren harira. Denontzat. Doan.

2015/12/01 - 20:00

Argia Ereiten Euskara Saria

Fadura kiroldegiko aretoa (Algorta) | Getxo
Euskararen Egunaren harira. Sarrera, doan.

2015/12/02 - 18:00-20:30

***Kirolean euskaraz* kanpainaren ekitaldia**

Zipiriñe ikastetxea | Sopela
Euskararen Egunaren harira. Kirol-jarduerak eta Athleticeko jokalariak egongo dira. Doan.

2015/12/02 - 18:00

***Azken eguzki-lore*a obra**

Kultur etxea | Urduliz
Euskararen Egunaren harira. Patata Tropikala taldeak antzeztuta. Doan.

2015/12/02 - 19:00

Genero-ikuspegia daukan hiri-diagnosiaren aurkezpena

Behargintza (Desanexio kalea, 4) | Erandio
Gaztelaniaz. Parte-hartzea, libre.



Kandelei putz egiteko hamaika arrazoi daukagu bost eragileok. © FREEPIK

Egitaraua

Azaroak 28, zapatua

11:00 Ipuin-kontalaria, Algortako kultur etxean, Villamonten.

11:00 Argazkilaritza-tailerra, Zabala eskolako liburutegi txikian.

11:00-14:30 Elkarteen aurkezpen-mahaiak, Zabala kalean.

11:30 Kafea eta berriketa, Berba-kafe, Zabala eskolako aterpean. Euskalgintzari kritika: Zer dugu ospatzeko? Zer dugu hobetzeko?

12:00 Sendi osoarentzako ginkana, Zabala eskolatik hasita. Ibilbidea: Zabala eskola, San Nikolas plaza, Telletxe, Bihotz Alai plaza, Teilagorri plaza eta Algortako Portu Zaharreko Etxetxu.

13:00 Bertso-poteoa, Zabala eskolan hasita.

15:00 Herri-bazkaria, Zabala eskolan.

16:30 Ekitaldia eta bingo-jokoa, musikagaz, Zabala eskolan.

18:00 Elektrotzaranga, Zabala eskolan hasita.

Eta askoz gehiago!

Ginkanan eta argazkigintzako tailerrean aurretik izena ematea eskertuko da.

izen-ematea: info@bizarralepoan.org

Opa dizueguna ospatuz!

Getxoko komunitate euskaldunak badauka zer ospatu. ALBEk, Bizarra Lepoan-ek, Azebarrik, Egizuk eta HIRUKAk urtebetetze-festa egingo dute azaroaren 28an, Algortan.

Algortako Bertsolari Eskola (ALBE), Bizarra Lepoan euskara-elkartea, Egizul, Azebarri eta HIRUKA elkarri begira ipini eta, bat eginda, ospatzeko asko dutela konturatu dira, tartean urteurrenak: 35 urte, ALBEk; 20 urte, Bizarra Lepoan-ek; 15 urte, Egizuk; urte bi, Azebarrik; urtebetea, HIRUKAk. Bidean, hamaika proiektu, ehunka

ekintzak eta milaka lagunak euren ekarpena eta arrastoa utzi dute.

Bost euskara eta kultur eragile horiek indarrak batuko dituzte zapatuan, azaroak 28, Algortan, egindako bidea «ospatzeko, eskertzeko, eta guztion begiradez etorkizun euskaldunari heltzeko» asmoz. Elkarrekin «sinergiak baliatuz, eta merezi duen legez ospatu gura» dute orain arte egindakoa.

Euren berbetan, «ginenak, garenak eta izango direnak batuz, guztion parte-hartzeagaz, ilusioagaz, bultzadagaz, gogoagaz, ekarpenagaz, eta denon irribarreaz eta besarkadakaz!».

Elkarteen eta herritarren ospakizuna izatea gura dutenez, «kalean gautu nahi dugu ekimenak». Horregatik, Algortako Zabala kalean paratuko dituzte elkarteen informazio-mahaiak eta argazki-erakusketa. Handik paraje, Zabala eskolan, kafea hartzeagaz batera euskalgintzari kritika egiteko berriketa antolatuko dute, urteotan egindakoetatik ospatzeko dituztenak

kontuan hartzeko, eta aurrerantzean hobetzeko daudenak ezagutu eta zuzentze bidean ipintzeko. Zabalan izango dira argazkigintza-tailerra, bertso-poteoaren abiapuntua, herri-bazkaria, eta elektrotzarangaren ibilbidearen hasiera ere bai. Ostera, neska-mutilentzako ipuin-kontalariak Villamonte kultur etxean eskainiko du saioa; eta Algortako hamaika txokotan egingo dute sendientzako ginkana.

Hain zuzen ere, ginkanan zein argazkigintza tailerrean aurretiaz izena ematea eskatu dute, ekintza biak hobeto egokitzeak. ◀

Koldo Izagirre idazlea gonbidatu du UKITXek

Uribe Kostako Irakurzaileen Txokoak (UKITX) gonbidatuta, eguen honetan, azaroak 26, Koldo Izagirre idazleak emango du berbaldia Algortako Villamonte kaleko kultur etxean; *Lorea Gernika, اندrazko bat* (2015, Susa) bere azken eleberraren inguruan egingo du berba pasaitarrak. Hitzordua 19:30ean ipini dute; sarrera, doan. Hiru bider ezkondu zen Lorea Gernika, eta beste horrenbesteko banantzeen edo alarguntzeen ostean –ez dago garbi– nahikoa eusko bildu zuen bizimodu erosoan atsegin hartzeko. «Hortxe kokatu dut protagonista; mundua ulertzeko arazoekin, hunkiberatasunean, alegia,



Koldo Izagirre idazle pasaitarra.

gizonezkook emakumea kondenatu izan dugun topikoan», dio Izagirrek. «Topikotik irteteko, Lorea Gernikak egin dituen saioen bilduma» da liburu hori, idazlearen arabera. Umorea eta malenkonía batzen ditu. ◀

Trikitixa Jaialdiak Katalunia eta Galiziako taldeak ekarriko ditu Getxora, zapatuan

Beste urte batez, Nazioarteko Trikitixa Jaialdia ospatuko dute Areetako Andres Isasi musika-eskolan; emaldia zapatu honetan, azaroak 28, izango da, 19:00etatik aurrera. Aurtan, parte hartuko dute honako talde hauek: La tupina (Katalunia), La Estatalá (Galizia), Zango (Euskal Herria) eta Zabaleta eta Motriku (Euskal Herria). Daborduko salgai daude sarrerak, 8 euroan. Jaialdia amaitu ostean, urteroko *trikisession*-saioa egingo dute, aurtan Algortako Azebarri kultur elkartearen (Euskal Herria, 14-16). Bertan, Oxabiren Lagunak taldeak joko du jaialdian parte hartuko duten musikariakaz, modu informalagoan. ◀

Egizu Getxo Euskaldun taldeak *Sutondo kontuak* soziolinguistika-liburua salgai ipini du Algortan

Autoedizioaren bidetik plazaratu berri du Derioko Tximintx elkarteko euskara-teknikari Txerra Rodriguezek *Sutondoko kontuak* bere lehenengo liburua. Soziolinguistikaren gaineko saiakera-liburu laburra da, *Garaigoikoa* blogetik abiatuta; txatalez osatutako lana, han-hemen batutako «kontuez» osatua, soziolinguistikak eta haren dibulgazioak lotuta datoz denak. Bilbon eta Durangoko Liburu eta Disko Azokan erosteko aukera edukitzeaz gainera, Algortan 10 euroan salgai egongo da Egizu Getxo Euskaldun elkartearen bulegoan; Martikoena kaleko 16. zenbakiko 2. solairuan, 09:00etatik 20:00etara. ◀

«Hausnarketa txiki bat sortzea da eleberriaren bigarren helburua»

Aritz Bergara
sestaoarrak *Olas negras*
eleberri beltza argitaratu
du; 15 euroan eros daiteke.

IKER RINCON MORENO ▶

Hilaren 28an, 20:00etan, Armintzako Portu Zaharra tabernan aurkeztuko du Aritz Bergarak *Olas negras* eleberria; 15 euroan eros daiteke, Elkar dendetan, besteak beste. Daborduko, aurreko beste eleberriaren jarraipena idazten dabil: *Lagrimas de fuego*.

Zer aurkituko du irakurleak *Olas negras* eleberrian?

Misteriozko istorio bat kontatzen dut. Kazetari bat egun batzuk pasatzera doa Armintzara, urpekaritza egitera. Halako batean, kasualitatez, ezbehar batekin egingo du topo. Ondoratutako itsasontzi bat ikusiko du, eta bertatik hildako marinela aterako du. Protagonista kazetaria denez, horren inguruan idazteko eta argazkiak ateratzeko aprobetxatuko du. Apurka-apurka ikertzen joango da; konturatuko da ez zela istripua izan, eta badagoela zerbait horren azpian.

Lan gehienetan mitologia gaiak jorratu dituzu. Zelakoa izan da mitologiari eleberri beltzera salto egitea?
Aurreko urtean, *Bajo la sotana* eleberri beltza ere argitaratu nuen. Orain arte idatzitako liburuetan, egin ditudan egitasmoetan edo antzerkirako gidoietan beti mitologiari buruz aritu izan naiz. Bada, arlo horretan nire ekarpena eginda dagoela uste nuen. Hala, irakurtzea gustatzen zaidana



Azaroaren 28an, zapatuan, egingo du eleberriaren aurkezpena Aritz Bergarak Armintzako Portu Zaharra tabernan, 20:00etan.

egiten saiatu naiz, baina Euskal Herrian giroa da. Hortaz, saltoa nahiko naturala izan dela uste dut.

Lan berriak badu loturarik aurreko eleberriagaz?

Bai, aurreko eleberrian agertzen diren pertsonaiak agertzen dira honetan. Hala ere, bi istorioak ezberdinak dira.

Kontatzen dituzun istorioetan bada- go kritikarako edo hausnarketarako tarterik, ezta?

Bai, beti dago; beti egon behar du. Jendeak ondo pasatu behar du irakurtzen, baina halako hausnarketa txiki bat egitea da liburuaren bigarren helburuetako bat.

Zelakoa izan da orain arte *Olas negras* liburuaren harrera?

Orain arte, oso ona; aurreko elebe-

rria irakurri duten gehienek irakurriko dute hau. Gustura gelditu ziren aurreko bitartean.

“Irakurleen iritziak biltzen ditut, eleberrien istorioa sortzen dudana bitartean”

rrekoarekin, eta batzuek, dagoeneko, berria irakurri eta euren balorazioak bidali dizkidate Facebook bidez. Oso pozik nago horrekin.

Zelanbaiteko hartu-emana baduzu irakurleakaz, ezta?

Bai, hori beti. Aurreko liburuan sare sozialetan mugitzen hasi nintzen, eta gauzak planteatzen nizkien irakurleei, haiek gogokoen zituztenak bozkatzeko.

ko. Oraingoan, adibidez, istorioa sortzen nuen bitartean, galderak egiten nituen, eta jendeak aukeratzen zuen, adibidez, protagonista hiltzea ala ez... Jendearen ekarpenak eta hurbiltasun hori biltzen ditut.

Zergatik Armintza agerleku lege?

Nire bigarren herria da Armintza. Sestaoarra naiz sortzez, baina hemen daramatzat urte batzuk bizitzen, eta oso gustura eta pozik nago. Hala ere, eleberri honetan, Armintza baino, zentral nuklearra aipatzen dut nik.

Hilaren 28an aurkeztuko diezu auzotarrei zure lana...

Bai, egindako ibilbidea azalduko diet, batez ere; uler dezaten mitologiari nola eman dudana saltoa eleberri beltzera. Portu Zaharra tabernan egingo dut aurkezpena, toki hurbil batean... ◀

www.durangokoazoka.eus

50. DA!

abenduaren 4tik 8ra

ANTOLATZAILAK

5. edizioa

BABESLE NAGUSIAK

50. DA! 2015

BABESLE PUBLIKAK

DURANGO Uda - Auzokazoka

Arriko Foru Auzokazoka

Nafarroako Gobernua

Gobierno de Navarra

BABESLE PRIVATIAK

bbk

EROSKI

euskaltel

Hiru egunez, artisautzaren erakusleiho bihurtuko da Getxo

Azaroaren 27tik 29ra bitartean, 78 artisauren salmenta-postuak bisitatzeko aukera egongo da Areetako Xake plazan; umeek tailerrak izango dituzte.



Azokan, 20 artisautza-espezialitateko produktuak egongo dira. © GETXOKO KULTUR ETXEA

Getxoko Artisautza Azokak 32 urte beteko ditu aurten; daborduko, erreferente bihurtu da sektorean, Getxoko kultura-arduradunek adierazi dutenez. Azaroaren 27tik 29ra bitartean, hiru egunez, artisautzaren erakusleiho izango da Areetako Xake plazako karpa; bisitariak aukera izango dute gune horretako 78 erakusmahaitan jarriko diren artisautzaren 20 esparrutako gaiak ezagutzeko eta zerbait eskuratzeko. Ohi-koa den legez, mota askotako artistek parte hartzen dute; beraz, eskaintza zabal eta interesgarria ziurtatzen dute, Getxoko Kultur Etxeak aipatu duenez. Ordutegiari dagokionez, 11:00etatik 14:30era, eta 17:00etatik 21:00etara (zapatuan 21:30ak arte) egongo da zabalik.

Horrez gainera, txikitxoak artisautzara hurbiltzeko, umeentzako tailer-programa sendoa ere eskainiko du azokak. Papera edo oihalak lantzeko tailerrak (*marmolaire* papera, paperezko loreak, postalak, apaingarriak, *decoupage*, eta abar), txotxongiloak eta buztzingintza egongo dira. Erakuslekuen zein diseinuen lehiaketek eta erosleen artean egingo den produk-

Haurrentzako tailerrak

Azaroak 27, barikua

17:00-20:00 *Marmolaire* papera (6-12 urte), paperezko loreak (3-5 urte), eta *Arraintxoaren etxea: itsaso hondoa* (3-4 urte).

Azaroak 28, zapatua

11:00-14:00 Postalak (6-12 urte), buztin polimerikoa (6-12 urte), eta txorien etxea (3-4 urte).

17:00-20:00 Ehungintza (6-12 urte), txotxongiloak (6-12 urte) eta *Zilindro-hiria* (5-7 urte).

Azaroak 29, domeka

11:00-14:00 Estanpazioa (6-12 urte), paperezko apaingarriak (6-12 urte), eta *Espazioak definitzen* (8-12 urte).

17:00-20:00 *Decoupage* (6-12 urte), ehun birziklatua (6-12 urte), eta *Norberaren etxea eta komunitatearen bizitza* (8-12 urte).

Egun eta ordu-tarte bakoitzeko tailerrak gela desberdinetan izango dira: lehenengo gela, bigarren gela, eta areto nagusia, hurrenez hurren.

tu-zozketak osatuko dute azokaren eskaintza; «ekimenak artisautza-lanera hurbilduko gaitu, objektuak eskuratzeko aukera eskaintzeaz gainera», diote antolatzaileek. ◀

Fair Saturday ekimen solidarioa, eskualdean

Fair Saturday (Bidezko Zapatua) Eguna artearen eta kulturaren bidez mundua aldatzeko nazioarteko eguntzat jotzen dute; Euskal Herrian ere badu bere isla, iazko ediziotik, eta Bilbon dago Euskal Herriko egoitza. Abiatu zenetik, azaroaren azken zapatuan egin izan da, eta ekitaldietatik ateratzen den dirua gobernuz kanpoko erakunde batentzat izan ohi da. Hala, ekimen horren barruan, zapatu honetan (hilak 28) sei kontzertu egongo dira Uribe Kosta eskualdean. Getxoko eta Gornizko abesbatzek kantaldiak eskainiko dituzte; sarrera, doan. Ekitaldietan egindako diru-bilketetatik lortuko dute GKEi emateko dirua: Harribide, Zabalketa, Caritas eta Argia Fundazioa izango dira onuradunak. Urdulizen, oster, Mabu pop-rock talde madrildarrak eskainiko du kontzertua; sarrera, 20 euro. Tio Pete estudioetan izango da saioa, 20:00etatik aurrera. Lortutako diruaren erdia Educori emango diote. ◀

Emanaldiak

Getxo

12:00 Pedro Guallar (organoa), Josu Aiarzaguena (tronpena) eta Juan Luis Novo (tronboia) musikariak, Algortako San Nikolas elizan. Doan. Harribide Fundazioari emango diote diru-bilketan lortutakoa.

20:00 Ondarreta abesbatza, Areetako Mesedeetako elizan. Sarrera, doan. Zabalketa GKEri emango diote diru-bilketan lortutakoa.

20:00 Zozoak eta Areetxo abesbatzak, Itzabaltzeta / Romoko San Jose elizan. Sarrera, doan. Caritas GKEri emango diote diru-bilketan lortutakoa.

20:30 Irutasun abesbatza, Algortako Erredentore elizan. Doan. Argia Fundazioari emango diote diru-bilketan lortutakoa.

Gorniz

20:00 Lirain eta Lirain Txiki abesbatzak, elizan. Sarrera, doan. Caritas GKEri emango diote diru-bilketan lortutakoa.

Urduliz

20:00 Mabu taldea (pop-rock), Tio Pete estudioetan. Sarrera: 20 euro. Batutako diruaren erdia Educori emango diote.

Gogoan izan lana aurkeztu du berri du Hizkuntz Eskubideen Behatokiak

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak *Duintasun bideak* bildumako lan berri bat plazaratu du: *Gogoan izan* izenburua daukan dokumentala. Oraingoan, Alzheimer gaitza daukan pertsona batek euskaraz bizitzeko duen gogo eta determinazioa ditu ardatz. Gaixotasuna dela-eta jaso behar duen tratamendu bat erdaraz jasotzea proposatzen diotenean, Maixus Rekaldek argi ikusten du hori ere euskaraz jaso gura duela, eta tinko egiten du horren alde, hori lortzen duen arte. Behatokia izan du bidaia horretan bidelagun. «Euskaraz bizi nahi duten pertsonak bi aukera dauzkate, egoera bere horretan irenstea, ala errebelatzea. Bigarrenaren aldeko hautua egiten duena saiatzen da konponbidea bilatzen», azaldu dute hizkuntz eskubideen aldekoek. Behatokiaren ustez, horrelako jarrerak beharrezkoak dira; izan ere, «horrelako jarrerak ekarriko dute aldaketa». ◀

info+: www.behatokia.org

Euskarazko produktuen katalogo berria sarean eskuragarri dago, daborduko

Urteko garai hau egundoko aukera izaten da seme-alabei edo ingurukoei euskarazko liburuak, musika edo jolasak erosi eta oparitzeko. Kontuak horrela, Euskarazko Produktuen Katalogoaren 18. edizioa osatu dute Euskal Herriko 140 bat udalek eta hainbat mankomunitatetako euskara zerbitzuek; Getxoko eta Erandioko udalek ere lagundu dute aipatutako lana plazaratzen. Gurasoentzako eta 12 urte bitarteko ume eta gazteentzako hamaika erreferentzia batzen du edizio berri horrek. Paperekoaz gainera, webgunea berrituta aurkituko dute erabiltzaileek: mugikor eta tabletetara egokitua, diseinu berritzaileagaz, eta beste hainbat osagai interesgarriagaz. Merkatuan aurki daitezkeen beste produktu asko ere agertzen dira. Aukera dago, gainera, argitaletxearen denda birtuale-ra iristeko produktuaren gainean klik eginez, eta begiz jotako produktuaren erosketa etxetik egiteko. ◀

info+: www.katalogoa.eus



Adimen-garapena

GORKA
AURRE URTZAA
Irakaslea

Ulermena, irakurle gehienen eragozpena

Irakaskuntzan ez da irakurtzen irakasten, dekodifikatzen baizik. Irakurketaren esparruan azken hamarkadetan ez da aurrerakuntzarik egin. Onartzea zaila den arren, horrela da.

Ikasleek gabezia garrantzitsu gehiegi dituzte buru belarri sartuta diren heziketa-prozesua bikain garatu ahal izateko eta horren ondorioa ikasketetan errenka jardutea, egindako ahalginiaren etekinik eza, emaitza kaskarrak eragindako etsipen handia jasan beharra izatea, denbora erruz galtzea etab. dira.

Ikaslerik gehienen irakurketa, geldoa eta ulermen urrikoa da. Gainera, arreta eta kontzentrazioarako eragozpen handiak dituzte, ikasketei heltzeko motibazio gutxi eta hori guztia gutxi balitz... ikasketarako teknikarik eza nabarmena ere, besteak beste, azaltzen dute.

Bestalde, idazkeran bakarrik ez eze, kontzeptuak, ideiak eta barne gogoetak ahoz adierazteko gaitasunean ere gabezia nahiko dute.

Hainbat urtetan irakurketarako ohitura desagokiak barneratu eta norbere irakurtzeko eran txertatzen dira. Beraz, bakoitzak duen irakurketarako eredua, etengabe, sistematikotasunez eta era ez kontzientean erabilitako ohitura desagokiak multzo besterik ez da. Landu ez denaren seinale.

Ulermena, ikasleen eragozpen larria da. Heldu eta nagusia ere. Eraginkortasunez irakurri daiteke, egun irakurtzen den moldetik urrun eta ulermen jasoz. Irakurle eraginkorrek beste edozeinek baino bost bider azkarrago irakurtzen dute. Irakurgaiaren zailtasunaren arabera euren abiadura egokitzeko gaitasunaz gain, arreta, kontzentrazio eta memoria maila jasoak dituzte. Irakurle eraginkorrek izatea, gure esku dago; ahalegina erruz egin behar da baina, zalantzarik gabe, merezi du. ◀



Lan berria plazaratuko du egunotan Toti Martinez de Lezeak.

«Liburuen mundua ez da soilik idaztera mugatzen»

Toti Martinez de Lezea idazleak (Gasteiz, 1949) liburu ilustratuen munduan egindako ibilbideaz berba egin du Getxoko Komiki Azokan.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Izugarri maite du Toti Martinez de Lezeak ilustratzaileek egiten duten lana; berarentzat miresgarria da buruan daukan hori iruditatzeko daukaten gaitasuna. Berbak eta irudiak bat datozela dio.

Baten bati arraro egingo zitzaion zure solasaldia Komiki Azokaren egitarauan iragarrita ikustea.

Kar, kar. Gehienbat, eleberri historikoak idazteagatik ezagutzen nauten askok, baina liburu ilustratuak ere badauzkat; *Sorginak* (Erein, 2006) eta *Euskal Herriko leiendak* (Erein, 2004) lanak horren adibideak dira. Bestalde, Nuren bildumaren barruan, 11 liburu plazaratu ditut, eta guztiak ilustratuta daude. Azkenik, *Bazen behin* izenburupean, 8 liburuz osatutako txiki-txiki-kientzako bilduma atera nuen.

Zelan hartu zenuen berbaldia egiteko gonbita?

Euskal Irudigileen Elkarte kide batek egin zidan gonbita, eta ezin nuen

ezezkorik eman. Nire ilustratzaileei buruz hitz egitea plazer bat da niretzat; miresgarria da nik buruan daukadana imajinatzen dudana moduan iruditatzeko daukaten gaitasuna. Gainera, behin baino gehiagotan eman ditut horrelako hitzaldiak. Izan ere, liburuen mundua ez da soilik idaztera mugatzen.

Nogaz abiatu zenuen ilustratzaileak hasitako ibilbidea?

Asun Balzola Elorza (Bilbo, 1942 - Madril, 2006) izan zen nik idatzitako liburuetan marrazkiak egiten lehenengoa. Oso ona zen; berak egin zituen *Euskal Herriko leiendak* lanaren lehenengo

rekin lan egin nahi nuela esan nion Erein argitaletxeari.

Azken lanak ez dituzu beragaz egin.

Horrela da. Juan Luis lanpetuta dago Erreterian; Frantziako argitaletxe barentzat ari da lanean. Dirudienez, datorren urtean bukatuko du, eta orduan jarraituko dugu elkarlanean. Bitartean, beste ilustratzaile batzuekin ibili naiz lanean: Estibalitz Jalon, Eider Eibar... Bereziki gustatu zaizkit Jonatan Arnaiz gaztearen marrazkiak; bion estiloak bat datoz, guztiz. Lanen bat elkarrekin egitea pentsatzen ari gara.

Esan daiteke ilustratzaile ugarigaz egin duzula lan zure ibilbidean.

Askorekin ez, batzuekin bai; guztiak oso onak, gainera. Inbidia handia ematen didate; ni oso txarra naiz marrazten!

Zelangoa da Jose Luis Landagaz daukazun harremana?

Umeentzako azken liburua, *Nur eta altxorraren kutxa* (Erein, 2015) izenburukoa, bere anaia Iban Landarekin egin dut. Esan dudana bezala, Jose Luis lanpetuta dago orain; Iban ere bikaina da marrazkiak egiten.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar norbaitek egin behar dituela liburuen azalak. Kontu oso interesgarria da hori; orain ordenagailua erabilia egiten dituzte azalak ilustratzaile askok. Lan bikaina egiten dute. ◀

“Inbidia handia ematen didate ilustratzaileek; ni oso txarra naiz marrazten”

edizioaren ilustrazioak. Hala ere, aipatutako obrarekin ez nintzen batere gustura geratu: lurralde bakoitzeko kondairak bananduta agertzen ziren; nik, ordea, guztiak batera nahi nituen, liburu bakar batean.

Tamalez, bigarren edizioa egiten hasi behar genuenean, hil egin zen Asun Balzola, eta ilustratzaile berria bilatu behar izan genuen; marrazki batzuk ikusi ostean, Juan Luis Landa-



Angolarrek merezita irabazi zieten espainiarrei Gobelako norgehiagokan.

Emakumeek, baloia esku artean

Nazioarteko Eskubaloi Txapelketa da egunotan Getxon. Euskadiko selekzioan parte hartzen duten emakumeek Afrikako txapeldunakaz lehiatzeko aukera izan dute.

Pasa den astelehenean, Angolako emakumezkoen eskubaloi-selekzioak 21-18 irabazi zion Espainiako unibertsitateetako taldeari, Gobelako kiroldegian. Partida horrek abiatu zuen Getxoko Emakumeen Nazioarteko Eskubaloi Txapelketa. Hiruko lehiaketa bariku honetan amaituko da.

Aipatutako talde biez gainera, Euskadiko selekzioak ere parte hartuko

du nazioarteko ekimenean. Eguazteen, bertoko jokalariek Angolaren aurka lehiatzekoak ziren, Faduran; aldizkari hau inprimategirako bidean zenean, partida hasi barik zegoen. Barikuan, azaroak 27, ostera, Euskadiko emakumeek Espainiako unibertsitateen kontra jokatuko dute, Gobela kiroldegian, 19:30ean.

Romo Eskubaloi Taldeak, Euskal Eskubaloi Federazioak eta Getxo Ki-

rolak udal erakundeak antolatu dute txapelketa. Horretarako, asteotan, afrikarrak Fadurako Hobekuntza Teknikorako Zentroan direla baliatu dute. Bertan entrenatzen dabilta datorren munduko txapelketarako, abenduan egingo dena Danimarkan.

Txapelketa oso lehiakorra izan zen lehenengo partidari, eta horrela jarraitzea espero da, Angolako selekzioa Afrikako irabazlea baita, eta unibertsitateetako selekzioa Espainiako Federazioak bigarren taldea delako; beraz, jokalariek berriak ikusteko aukera izango da Algortan zein Itzubaltzeta/Romon, egungo talde espainiar arrakastatsua

ordezkatzera etorritakoak, hain zuzen. Horrez gainera, Euskadiko selekzioa eta Euskal Herriko emakumeen eskubaloia, oro har, sasoi bikainean dabilta, Bera Bera eta Zuazo taldeak, biak ligaren goiko postuetan daude-eta. Halaber, bigarren mailan, talde ugari ari da jokatzen. Bestalde, Getxoko txapelketari esker, Romo Eskubaloi Klubak kirol hori sustatuko du Itzubaltzeta/Romoko eta inguruko neskaketen eta gazteen artean, emakumeen lizentzia-kopurua gehitzen dabil-eta.

Sarrerak Romo Eskubaloi Taldean Gobelan eta Faduran eskura daitezke, sei euroan; edo biau, umeentzat. ◀

Getxo Saskibaloia: inoiz baino jokalaririk gehiago

Marka batez abiatu du denboraldia Getxo Saskibaloi Taldeak. Carlos Sergiok gidatzen duen klubak 237 jokalaririk ditu aurten, txikienetik helduenera, 21 taldeetan. Balentriaren berri eman zuten pasa den azaroaren 13an, Faduran egin zuten aurkezpen ofizialean.

Errautsetatik birsortuz

Emakumezkoen talde nagusia Bigarren Nazionalean jokatzen dabil, joan den denboraldian partida denak galdu ostean, kategoriaz jaitsi ondoren. Kontuak hala, hasi den denboraldian gogo eta maila berreskuratzea izango

dute helbururik nagusia jokalariek. Fran Garcia entrenatzaileak gidatuko ditu helmuga horretara hurbil daitezkeen. Zortzi partiden ostean, getxoetarrak taularen erdian daude, liderrarengandik hiru puntura.

Gizonezkoen talde nagusiaren egoera antzekoa da Lehenengo Nazionalean, zazpi partidatan jardun ostean. Alberto Gutierrezek gidatuta, euren helburua lehen sailkatuen artean sartzea da, igoerako fasea jokatu ahal izateko. Hala ere, aurkezpenean klubak azpimarratu zuenez, harrobiari garrantzi handia emango diote aurten, aurreko urteotan legez. ◀

Mercedes Aristegui, Donostian ere irabazle

Mercedes Aristegui Jolaseta kirol-taldeko tenislariak Donostiako Gazte Nazioarteko Tennis Txapelketaren 70. edizioa irabazi zuen, pasa den azaroaren 15ean. Jolaseta klubaren zuzendaritzak azpimarratu duenez, Aristegui «gogor entrenatzen dabil egunero gure pistetan, eta hainbat lehiaketatan jokatzen eta irabazten dabil».

Madrilgo Mutua sariketa

Aurreko marka urrian egin zuen getxoetarrak, 16 urte azpiko Madrilgo Mutua sariketan. 15 urteko gazteak denboraldi batean sari horretako bi

proba irabazi ditu; inork ez du inoiz halakorik egin. Pasa den urriaren 11n, Valladoliden nagusitu ondoren, Aristegui urriaren 25ean irabazi zuen Jolaseta jokatuako sariketa, zirkuituko bosgarrena. Tenislari getxoetarrak baliatu zuen etxean jokatzeak ekarri zion abantaila: 6-2 eta 6-0 irabazi zion Ines Benitori, aste osoko jarduna biribilduz. Aristegui azken faserako sailkapena irabazi zuen Jolaseta. Partidak 2016ko maiatzaren 5etik 8ra jokatuko dira Madrilgo Caja Magica kirol-gunean. Bertan, puntako tenislariak eza gutzeko esperantza dauka Aristegui, batez ere, Garbiñe Muguruza. ◀

Bodyboard lehia egingo ote da?



Zumaiaiko proban hoberen sailkatu ziren 18 urte azpikoak. © EHSF

Asteburu honetan jokatzekoa da Euskal Bodyboard Zirkuituaren hirugarren eta azken proba, Algortako Ereaga hondartzan. Bertan egiterik ez balego, Sopelako Arriatera hondartzara eroango lukete lehiaketa.

Halere, izan liteke zapatuan eta domekan ez egitea, eta hurrengo asteburu baterako uztea. Izan ere, daborduko birritan egin behar izan dute hori, eguraldiaren eraginez. Hasierako datak azaroaren 7a eta 8a ziren, baina hilaren 21a eta 22a finkatu zituzten ondoren, itsasoaren egoera zakarra zela-eta. Agerikoa denez, pasa den asteburuan ere ez zen jokatu. Kontuak hala, daborduko 17 surflarik eman

dute izena lehia irekirako, tartean Aritz Larrinaga eta David Perez sope-loztarrak. Larrinagak lehenengo proba irabazi zuen, Donostian maiatzean jokatu zena. Pasa den urrian ez zuen horrenbesteko zorterik izan Zumaian. Bertan, bosgarren geratu zen.

Perez erregularragoa izan da: laugarren sailkatu zen Donostian, eta hirugarren, Zumaian. Bien arerio nagusia Alex Odriozola zumaiaarra dateke, bigarren probaren irabazlea, baina Ereagan parte hartuko duen ez du baieztatu (astekari hau inprimategira bidali aurretik). Bestalde, 18 urte azpiko kategorian, 8 surflarik parte hartuko dute, tartean Mikel Atxega Zumaiaiko irabazleak. ◀

Lointek taldea sendotu egin da 9 txirrindularigaz

Sopelako Lointek txirrindularitza-taldeak osatu du denboraldi berrirako lasterkarien zerrenda. Sopela-Ugeraga talde filialetik talde nagusira jauzi egingo dute Rocio Garciak (Espainiako gazte-mailako txapelduna) eta Elisabet Llabresek. Madrid Challenge talde profesionaletik Maria Calderon erlojupeko txapelduna eta Teresa Ripoll ekarri dituzte. Beste kide berriak honako hauek dira: Chloe Fraser eskalatzaile eskoziarra, Anna Ramirez katalana, Empar Felix valentziarra, Mar Bonnin mallorcarra eta Gloria Rodriguez murtziarra. Halere, orain arte Lointeken jardun duten

honako zazpi emakumeak dira taldearen oinarria: Eider Merino balmasedarra, estatu mailan dagoen eskalatzaile onena eta Txapeldun Sarian eta Espainiako Kopan hainbat etapa irabazi dituen; Belen Lopez andaluziarra, Espainiako Koparen eta Burgosko Vueltaren irabazlea; Aurore Verhoeven frantsesa; Lucia Gonzalez asturiarra; Alicia Gonzalez, Espainiako 23 urte azpiko txapelduna; Cristina Martinez valentziarra, iaz gazte-mailatik igo, etapa bat irabazi eta Euskal Emakumeen Birako gazte-maillota jantzi duena; eta Alba Teruel valentziarra, kilometro gehien egin duena. ◀



Talde laranja erlojuaren aurkakorako eta mendateetarako indartu da gehien. © LOINTEK



Emakumezkoen gomazko paleta-kiniela irabazi zuten pasa den barikuan Ane Diez atxondoarrak eta Iraitz Miranda basauriarak. Bikote urdina beste 8 bikoteri nagusitu zitzairen Andra Mari udal pilotalekuan, Getxoko euskal pilota-taldeak antolatutako proban. © GMGZ

Sopelan itxiko du pilota-zirkuitua GMGZ Eventsek

Zapatu eta domekan, Gizonezkoen Banakako Pala Motzaren eta Emakumezkoen Gomazko Paletaren IV. GMGZ Zirkuitua jokatu da Sopelako udal pilotalekuan. Zapatuan, 10:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara izango dira demak; eta domekan, 11:00etatik 14:00etara. Sarre-ra doakoa da. Sopelakoa zirkuituaren laugarren eta azken proba izango da, Deba, Gasteiz, eta Iruñeko frontoiak bisitatu ondoren. Gomazko paletan, Laura Saez gasteiztarra da faboritoa. Iaz, sailkapen nagusia eta Sopelako proba irabazi zituen, eta aurtan, MPB zirkuitua lortu du. ◀

David Lombardo AEBetatik Uribe Kostara etorri da

Baque-Campos taldeak David Lombardo txirrindularia fitxatu berri du. Lombardo 23 urte azpiko AEBetako txapelduna da, Criterium proban pasa den ekainean Kalifornian lortu zuen garaipenari esker. Errepidean 8.a izan zen, eta erlojuaren aurka, 30.a. Era berean, unibertsitate-mailako txapelketan brontzezkoa lortu zuen. Gaztea Illinois Estatuko Crystal Lake hirian jaio zen, eta 19 urte ditu. Taldearen arabera, txirrindularitzan etorkizun oparoa izan dezake. Estatubatuarra Elkar Kirolak fundazioaren taldeagaz lehiatuko da datorren denboraldi osoa. Lombardok Berango izango du bizileku. ◀



© AMOREBIETA.COM

Atela, Erandio gidatzen

Josue Atela entrenatzailea Erandioko lehenengo futbol-taldeaz arduratuko da, Gaizka Ballarinek dimisioa eman eta Iker Martinek entrenatu ostean. Taldea jaistekotan dago.

Josue Atela Llona teknikari derioztarra eta Erandioko Kirol Elkar-tea akordio batera heldu ziren, pasa den astean. Azaroaren 18an, eguaztena, Atelak lehenengo entrenamendua egin zuen Ategorrin, lehenengo taldeagaz, Gaizka Ballarinek eta Iker Martinek utzitako lekuan. Hala ere, pasa den zapatuan, Sodupen, Iker Martin eseri zen «berriro ere aulkian»,

aurretik klubak azpimarratu zuenez. Erandioztarrek ezin izan zioten eutsi Soduperi; lidergora bueltatu da Sodupe. Ategorrikoek 4-1 galdu zuten Enkarterrin, nahiz eta emaitzak islatzen duena baino aukera gehiago izan.

Partida ostean, Erandio azken aurrekoa da Ohorezko Mailako sailkapenean, bost puntugaz; bi, Iker Martinek lortuak. Atzean, Trapagaran dago,

puntu bat gutxiagaz, eta gainean, Abanto dute areriorik hurbilena, zazpi puntugaz. Erandioztarrek Lekeitio hartuko dute etxean asteburuan. Lea-Artibaiko taldea taularen erdian dabil, eta neurriko arerioa da Atelaren mutilentzat.

Hamaikakoa bideratzea eta sailkapenean gorantz egitea izango dira derioztarraren erronkak. Beharraren

erdia eginda dauka, hainbat jokalaria aurretik entrenatu duelako eta beste gehienak zenbaitetan futboleko ikusi dituelako. Hala ere, adierazi duenez, «nire lehenengo helburuak dira zer daukadan jakitea, eta izan ditzakegun hutsuneak betetzea».

Atelak Somorrostro gidatu zuen 2013-2014 denboraldian, eta Hirugarren Mailara igo barik geratu zen, Erandioren erruz. Aurretik, bere herrian jardun zuen, Derio 2012-2013 denboraldira arte entrenatu baitzuen. Pasa den denboraldian, ordea, Bigarren Brako jauzia egin zuen, Amorebietak deituta. Ostera, zuzendaritzagaz tira-birak izan ostean, teknikariak dimisioa eman zuen urtarrilean. ◀

Waterpolo-tailerra antolatuko du Askartzak, neskentzat

Lelioako Askartza Igeriketa Taldeak waterpolo-tailerra egingo du zapatu honetan, azaroaren 28an. Hitzordua Askartza igerilekuan ipini dute, 14:00etan. Saioak 90 minutu iraungo du. Bertan parte hartu eta baloi horiagaz praktikatzera gonbidatu dituzte zortzi urtetik gorako neska denak.

Neskatoek ez dute zertan kirol horretan esperientzia izan, goiz pasan disfrutatzeko gogoia izatea baino ez. Hala ere, interesatuak aurretik izena eman beharko dute. Zapatukoa Askartzaren harrobia zabaltzeko beste ekimen bat da, iaz abiatutakoen segida. ◀

izen-ematea: info@clubaskartza.com

Baiona eta Getxoko errugbi-eskolak, batera

Fadurako *bonboi-kutxa* Baiona eta Getxoko errugbi-eskolen topaketaren lekuko izan zen, pasa den zapatuan. Denera, 125 bat neska-mutilek, 25 bat teknikarik eta 150 bat gurasok parte hartu zuten jardueran.

Goizeko 10:00etatik aurrera, autobusez etorritako Baionako delegazioari harrera egin, eta entrenatzeari ekin zioten 6 eta 10 urte bitarteko umeek. Ondoren, elkarren aurkako partida jokatu zuten Ipar eta Hego Euskal Herriko talde biek. Ohi den legez, hirugarren aldia, denek batera gozatu zuten, Getxoko errugbi-eskolako gurasoek prestatutako bazkarian.

Erlantz Gorbea Martinez 8 urte azpikoen ordezkariak azaldu duenez, «oso ondo atera zen dena: umeak pozik, entrenamendua oso ondo, partida ere bai... Oso polita izan zen. Komentatu genuen herria egitea dela hori». Gainera, «umeak jabetzen dira errugbi munduan nor den Aviron, eta Ipar Euskal Herriko talde bat hona etortzea



© JORDI BLASI

izugarria da». Ander Gorostiaga 10 urte azpikoen ordezkaria hasi zen harremanetan baionesakaz, eta oso harrera ona eta aktiboa egin zioten. Getxokoek bisita bueltatuko diete udaberrian, eta aukera izango dute Avironen talde profesionalaren partida bat ikusteko. Gainera, talde bietako umeek «ohorezko korridorea» egingo dute. ◀

aldai

**TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK**

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

GAYRKO



**GIZONENTZAKO
MODA**

Zabala 9
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

Zorion agurrak

Urtebetetze, ezkontza zein jaiotza... Bidali zeurea!
publi@hiruka.eus · 94 491 13 37

5€



ESTELA
ALGORTA
Etxekoan partez

Zorionak! Lerro hauek erabili gura izan ditugu, urtebetetze-egunik ederrena pasa dezazula opatzeko. Bakailaorik egingo duzu Gabonetarako? Musu bat!



EIDERTXU
ALGORTA
Senideen partez

Txikitan bezala, «txoritxo» daramazu buruan... Segi argazkian bezain irribarretsu. Musu erraldoi bat denon partez, eta disfrutatu zure egunaz!



XABI
AREETA
Kuadrillaren partez

Zorionak, Xabi! Errekalden erbesteratu zinenetik, ez da erraza zu ikustea... Tragoxka batzuk aterako dituzu, ezta? Egun ederra igaro!



JULEN
BERANGO
Lankide ohien partez

Urte berri on, Julen! Ondo ospatu zure urtebetetzea, lan gitxi eginez eta izugarri gozatuz! Segi hain beharrezkoa dugun zure irribarre hori eskaintzen!

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Zure sinboloak indar handia hartu du egunotan, eta aurrera begira ere izango du. Gogoratu zure gorputzaren heren bi baino gehiago ere badela.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Gozokiak eta karameluak eskatzen dituzten umeak edozein lekutan topa daitezke. Horren antza hartuko dizute bankuan, maileguren bat eskatuz gero.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Basora sartu eta egurra metatzea kirol ona izan daiteke neguaren gorrian; baina gutxirako baliatu ahal izango duzu zur hori, sukalde elektrikoa baduzu.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Zure telefonoa aldatu beharrean zaude? Itxaron apur batez, laster eskaintza ona egingo dizute-eta. Hori bai, ez ahaztu: aurrekoa birziklatu.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Patxadaz lo-kuluxka egiteko oso leku ona da hari-tzaren enborra, baina zerua justuriz bete bada, ez pentsa euritik babesteko lekuri aproposena denik.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Lirikarako garai txarrak direla betidanik esan dute abesten ez dakitenek. Hortaz, ez egin kasurik, 'oraindino ez da unea' esaten dizutenean.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Kontuz ibili zure inbertsioakaz, Erandio, Leioa eta Loiuo nekazariei legez gertatzerik gura ez baduzu. Arto asko erein arren, kui gutxi izaten zuten.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Zure eskubideak errespetatu dituzten, lehenengo zuk zeuk serio demonio defenatu beharko dituzu. Hizkuntz eskubideak ere bai.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Ez ibili loteriaren emaitzei begira, eguneroko ezustekoei baizik. Beti dago bizi-kalitatean eta harremanetan irabazteko moduren bat.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Durangorako zerrenda hastea ondo dago, baina noizbait itxi beharko duzu. Bestela, hainbeste orrigaz, liburuki batean bildu eta argitara dezakezu.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Gaur isiotutako harreman horrek berotasun handia emango du hemendik gutxira. Gozatu epela eta beroa, baina ez erre.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Oraindino, denbora asko falta da negurako, Espainiako hauteskondeetarako baino gehiago. Zein luze egingo zaizun tartea!

Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?



SARIA

Musiketan zikloa

Seth Glier-en

kontzerturako 5 sarrera bikoitz dauzkagu

Abenduak 6, domeka, 20:00; BBK Aretoa (Bilbo)

Producciones Serranoren ekimenez, Seth Glier musikagileak eskainiko duen emanaldirako sarrerak zozkatuko ditugu. Gura badituzu, abenduaren 2a baino lehenago, helarazi erantzuna (emailera), zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337

Sudokua

3	5		4					2
		1				9		
	4					5		
				8				6
					2			8
6				1				3
2		4	8	9				
		8		7		6	2	
5	6	7						

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, lerro eta azpilaiki bakoitzean.

Soluzioa

6	7	8	1	3	2	7	9	5
1	2	9	4	7	5	8	3	6
5	7	3	9	6	8	4	1	2
3	6	7	5	1	7	2	8	9
8	5	7	2	4	9	3	6	1
9	1	2	3	8	6	5	7	4
7	3	5	6	2	1	9	4	8
4	9	6	8	5	3	1	2	7
2	8	1	7	9	4	6	5	3



Berdintasun-ordenantzak Udaletatik parekidetasunerantz

Tokiko zazpi erakundek onartu dute Berdintasun-ordenantza Bizkaian; Arratiako Mankomunitatea eta Abadiñoako Udala kenduta, beste denak Uribe Kostakoak dira: Barrika, Gorliz, Lemoiz, Plentzia eta Urdulizko udalak.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA



Pasa den azaroaren 17an, «Berdintasunerako ordenantzak. Esperientziak eta erronkak» goiburuko jardunaldia egin zuten Bilbon, Emakundek eta Eudelek. Bertan, udaletan parekidetasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra ahalegin handiagoa egiteko ordenantzak sortzeko hainbat prozesuren emaitzaz jardun zuten, besteak beste. Izaskun Landaia Emakundeko zuzendariak eta Ibon Uribe Eudeleko Berdintasun Saileko ordezkariak azaldu zuten, Berdintasunaren proiektu pilotu bati esker, hainbat udal ertain eta txikik konpromiso politikoa hartu dute emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunerako ordenantza bat abian jartzeko. Prozesuak urte bi baino zertxobait gehiago iraun du, eta bertan jardun dute modu koordinatuan berdintasun sailerak, idazkari-tzetako eta udal zerbitzu juridikoetako langileek.

Bilboko jardunaldian Uribe Kostako, Abadiñoako eta Kanpezuko esperientziei begira ipini ziren, horiek adibidetzat hartuta. Besteak beste, ordenantzek honako alderdiak jasotzen dituzte:

- Berdintasun Saila sendotzea. Berdintasunerako politika espezifikoak garatzeko giza baliabide eta baliabide material zein ekonomiko nahikoak eskaintzea.
- Berdintasunerako irizpideak gehitzea, kontratazio publikoetan eta diru-laguntza banaketan. Diru-

laguntzak eskatzen dituzten eta Udalak kontratatzen dituen elkarte, kolektibo, erakunde eta enpresa denek berdintasunarekiko konpromisoa izatea.

- Barruko zein kanpoko informazioa eta jakinarazpenak genero ikuspegia kontuan hartuta ekoiztea eta kudeatzea.

Esti Anitua: «esperantza daukat aurrera eroango ditugula Mankomunitateko herrietan falta diren ordenantza guztiak»

- Teknikariak eta politikariak berdintasunerako prestakuntza-planetan parte hartzea, eta hezkuntza-zentroetan sentsibilizazio planak sustatzea, generoko rola eta estereotipoak saihesteko.
- Bide publikoan segurtasun-sentsazioa areagotzeko, «gune ez-segurua» desagerraraztea, eta horretarako ekintzak sustatzea.
- Eraso sexista bako zein emakumezkoen eta gizonezkoen gozatzeko eta aisialdian egoteko gune bihurtzea inguru publikoak, adibidez, festak.
- Udal ordenantza ezarri, eta egiturak sortzea be-
tearazten dela egiaztatze eta ebaluatze.

Zazpi urteko ibilbidea

Tolosa da ekimen horren erreferentea. 2008an, udal gipuzkoarrak onartu zuen lehenengoz berdintasunerako ordenantza bat. 2012an, oster, Eudelek eta Emakundek ordenantza hori sortzeko lehenengo gidaliburua editatu zuten, eta, bertan, ordenantza-
ren eredu bat eskaini zuten. Orduetik aurrera, bi erakundeek koordinatuta, udaletako talde eragile bat modu aktiboan inplikatu da, udaletarako berdintasunerako ordenantza bat sortzeko prozesuan. Uda-
lerako joko-arau egonkorak finkatzea dakar berdintasunerako ordenantza onartzeak; emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunari goi mailako estatusa ematen dio, bai praktikan bai esparru sin-
bolikoan, eta berdintasunerako udal politikaren oi-
narriak finkatzen ditu.

Uribe Kostako herri txikiak

Gaur egun, EAEko 16 udaletan dago martxan berdintasunerako ordenantza bat. Arratian, Mankomunitateak onartu zuen eta eragiten die eskualdeko be-
deratzi udalerriei: Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa, Ubide eta Zeanuri. Udal-
erri mailako ordenantzak zazpi dira: Abadiño eta Kanpe-
zu kenduta, beste denak Uribe Kostako herriak dira. Gurean, Plentzia izan zen parekidetasunaren aldeko testua onartu zuen lehenengo udala. 2014ko azaroa-
ren 25ean egin zuen hori. Hurrengo hilabeteen batu zitzaizkion Barrika, Lemoiz eta Urdulizko udalak, eta aurtengo maiatzean, Gorlizkoa.

Esti Anitua Valles Uribe Kostako Mankomunitateko teknikariak akordura ekarri duenez, «hemen 2012tik gabilta horretan lanean, eta apurka-apurka goaz. 2014an onartu zituzten ordenantzak lau herri



Ezkerrean, azaroaren 25eko elkarretaratzea Berango; bertan, berdintasun-ordenantza onartzeko bidean dute. Eskuman, Plentziako mobilizazioa; itsas hiribilduko udal-araua aitzindaria da eskualdean.

txikitan. Aurten Gorlizkoa izan da, eta Berango zein Sopelan lanean gabiltza, baita Mankomunitatean ere. Esperantza daukat aurrera eroango ditugula falta diren ordenantza guztiak».

Izan ere, etorkizun hurbilean litekeena da Mankomunitateko udalerrri denek izatea horrelako ordenantza bat. Anituak iragarri duenez, eguen honetan, hilak 26, zirriborroa landuko dute Berangoko Udalean, Berdintasuna, Gizarte Ongizatea eta Mankomunitateko Gaietarako Informazio Batzordean. Bali-teke zirriborroak Udalbatzarako bidea hartzea laster, bertan onar dezaten. Aspalditik landutako gaia da, irailean jarri zuten egueneko hitzordua.

Sopelan ere jorratzen dabilta ordenantza zirriborroa. Pasa den legealdian, EH Bilduren Udal Gobernuak proposamena Udalbatzara eroan zuen, udal hauteskundeetarako bost egunera, eta EAJk eta PSE-EEK atzera bota zuten. Orain, berriro ere, «horretan lanean gabiltza», azaldu du Anituak; Naiara Ibarzabal Arrasate Berdintasun zinegotziagaz biltzeko da horren inguruan jarduteko.

Uribe Kostako Mankomunitatean ere ordenantza berandu baino lehen onartuko dela uste du teknikariak. Izan ere, 2012an, Maria Isabel Landa Gaubeka presidenteak helburutzat ipini zuen. «Prozesu hauek luzerako dira, ez dira gaur hasi eta bihar bukatzekoak. Prozesua abiatu genuen beharra eginez, taldeka, alderdi politikoakaz, teknikariakaz, eta horretan gabiltza. Hauteskundeak direla-eta, atzeratu egin da kontua baina hor daukagu zirriborroa aurkeztu eta eztabaidatzeko», azaldu du Esti Anituak. Izan ere, «arautegia onartzen duzunean betetzeko da. 2005eko Berdintasun Legea gure udalerrietara moldatzea da, eta horrek prozesu bati jarraitzea es-

kutzen digu, denbora eman beharra dago horretan. Batez ere, jendeak ordenantzak uler ditzan, zertara behartzen dituen jakin behar du. Hau ez da trakzio mekanikoko ibilgailuen zergarako ordenantza idaztea bezala», dio parekidetasun bultzatzaileak. Gainera, azpimarratzen duenez, «testuak udaletara egokitu beharrekoak dira, eta udalak ez dira berdina».

Bere ustean, «etekin asko» dakar berdintasun ordenantzak: «lortu dugu koordinaziorako azpiegiturak sortzea, udalerrri guztietan eta Mankomunitatean. Batez ere berdintasun politikak herri-mailan jarraitzeko koordinatzeko azpiegitura horiek beharrezkoak dira eta horrela ziurtatu ditugu». Gainera, udal teknikari, alderdi politikoetako ordezkari eta emakumeen

«Berdintasun ordenantza egitea ez da trakzio mekanikoko ibilgailuen zergarako ordenantza idaztea bezala»

taldeek parte hartu dute prozesuetan «eta beraz badakite zer den Berdintasun Arloa». Sopelako esperimentziaren gainean, oso pozik agertu da herritarrek diseinuan izan zuten parte hartzeagatik. Bestalde, ordenantzetan zehaztutako ekimenetatik «denak egin gabiltzala, bat edo bi ezik», azpimarratu du.

Uribe Kostako udalerrri handiak

Bitartean, eskualdeko herri handiek beste norabide bat edo, gutxienez, beste erritmo bat dute. Getxoren kasuan, *Getxon Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana*-k aurreikusi zuen berdintasunera-

ko ordenantza idaztea. Zehazki, «berdintasunaren alde gobernantza hobetzea» helburu, honako ekintza proposatu zuen: «Udalak garatutako eta bultzatutako ekintza guztietan berdintasuna bermatzeko ordenantza bat sortzea». Plana 2011-2014 bitartean garatzekoa zen, baina oraindino Udalak ez du ordenantza hori onartu. Gainera, Idoia Eizmendi udal teknikariak onartu duenez, datozen hilabeteetarako ere ez dago aurreikusita horrelakorik.

Erandion ere, epe laburrean ez dute onartuko berdintasunerako ordenantzarik. Hala ere, Leire Idarraga Espel teknikariak azaldu du Uribe Kostako herri txikien prozesua jarraitzen dutela, eta informazioa batzen dabiltzala. Leioako Udalak ere ez du aurreikusten ordenantzarik onartzea datozen hilabeteetan, bertako Berdintasun Saileko kideek jakitera eman dutenez. Ostera, ez dute baztertu martxan jartzeko aukera, epe ertain edo luzean.

Eskualdetik kanpo, ordea, hiru udalerririk hartuko dute parekidetasunaren aldeko konpromiso politiko: Ermuak, Ondarroak eta Sestaok.

Bitartean, Eudelek eta Emakundek gogora ekarri dutenez, berdintasunerako ordenantzaren helburu nagusia da herritarrak eta udaletako langileak eurak kontzientziatzea; aldi berean, emakumeenganako diskriminazioa txikitzea eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa sustatzea gura da, ordenantzaren bidez. Zentzu horretan, Eudelek «udalei, batez ere txikienei» laguntza ematen jarraituko du, bide horretan segi dezaten. Horretarako, Berdintasunaren bitartez, lan-ildo berriak jarriko dituzte abian, esparru bitan: abian dauden baliabide eta programen erabilera hedatzea, eta tresna berri-tzaileak garatzea, modu paraleloan. ◀

Sukaldean

Betiko pintxoagaz, euskaraz gora eta behera



OSAGAIK:

Moldeko ogia, letxuga, tomate, hegazuza, limoizko gelatina, oliba-olioa, gatz, maionesa, madari moduko tomate *cherry*-a, eta tabaskoa.

LAU BIDE TABERNA

Basagoiti etorbidea 76
Algorta (Getxo)
facebook: Lau Bide

Basagoiti etorbidearen amaieran, Arrigunaga hondartzarako aldaparen ondoan, bazter gordean aurki daiteke Lau Bide taberna. Txoko berri horrek irabazi du aurtengo «GetxOn Egin» Pintxo Lehiaketaren Euskararen erabilera onaren saria, «Gora Behera» pintxoagaz. Betiko mokadua dela aitortzen du bertako tabernariak, «beti harrera ona izaten du pintxo horrek, baina lehiaketarako itxura berezia eman genion». Egunero dasta daiteke mokadutxo hori, 1,50 euroren truke. Baina, etxean probatu gura duzu? Oso erraza da hori egitea, goazen, bada! Lehenik eta behin, moldeko ogia bitan zatitu beharko dugu. Ondoren, hegazuza tabaskoagaz eta tomateagaz nahastuko dugu, saltsa mina lor-

tzeko. Horregaz, pintxoaren lehenengo partea egingo dugu, hegazuza moldeko ogi zati bitan jarrita. Beste zatirako, letxuga maionesagaz igurtziko dugu, eta beste ogi zati bitan ipiniko dugu. Ondoren, bi zati horiek elkarren gainean jarriko ditugu, pintxo osatzeko. Jarraian, madari erako tomate *cherry*-a zati bitan ebaki, eta zotz batean ipiniko dugu. Orain, mokadua plateran jartzeko unea izango da: pintxo alde batean, alboan tomate zotzagaz, eta etxean egindako limoizko gelatina beste aldean. Azkenik, labeldun tomateagaz, oliba-olioagaz eta gatzagaz saltsa freskoa egingo dugu, guztiaren gainetik botatzeko. Listo! Erraza, ezta? Txakolin on bategaz dastatzeko aproposa, goza egizue! ◀

faceguk



Zer deritzozu Euskararen Egunari?

KEPA SOTO ZUFIRIA

SOPELA



Ikastolaren eraginez, semea hasieratik euskaraz hasten ari dela ikusten da. Etxean gehiago kostatzen zaigu, baina euskaraz jarraitzen saiatzen gara, esaldi batzuek.

AINZANE LIBARONA BONAETXEA

BARRIKA



Euskararen Eguna ospatu behar da, baina gero, egunero lan egin behar da. Gero eta gehiago praktikatu behar dugu, seme-alabekin egiten dugu, baina lagunekin ez...

ITXASO SANCHEZ IGLESIAS

SOPELA



Horren alde nago. Ezin izan nuen euskara ikasi, eta interesa dut nire semeak ikas dezan. Gai garrantzitsua da; hortaz, euskararen alde egiten dena bultzatu behar dugu.

ASIER BILBAO PEREA

SOPELA



Nik uste, gauza gehiago egin behar direla. Euskara gehiago bultzatu beharra dago. Egun bakar bat gutxi dela uste dut. Euskara balioan jarri beharra dago.

LEIRE BASARRATE ETXEBARRIA

SOPELA



Orokorrean, gauza gehiago egitea beharrezkoa da euskara zaintzeko. Ondo dago egun batean garrantzia ematea, baina urtean zehar ere gauzak egin beharra dago.

Dastaketa fitxa

TXAKOLINA: Itsasmendi.

UPELTEGIA: Itsasmendi Upeltegiak.

SUSTRAIEI DARIEN BENETAKOTASUNA:

Gure lursail desberdinen aniztasun geologikoak eta bertako mikroklimak markatu egiten dute bere izaera.

Txakolin freskoa, harmoniatsua eta iraunkorra. Amaieran, hondarrabi zuriren ezaugarri den mingostasun apurra dotorezia izugarria ematen dio.

Bizipozaren txakolina!



www.bodegasitsasmendi.com

Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua